



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko apirilaren 10a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Etxauriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Lekunberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (24. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Etxauriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Etxauriko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Etxauriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Aitzinsolasa (3. or.).</p> <p>II. Erakundearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1 Datu orokorrak (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2 Araudia (3. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (4. or.).</p> <p>IV. Iritzia (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udala (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Denak Bat Erakunde Autonomoa (5. or.).</p> <p>V. 2010eko kontu orokorraren egoera orria (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Etxauriko Udalaren Kontua (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Denak Bat erakunde autonomoaren 2010eko ekitaldiko kontua (11. or.).</p> | <p>VI. Udal honi buruzko ondorioak eta aholkuak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. 2010eko Aurrekontua eta Kontua (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Langileak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Inbertsioak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Transferentzia arruntetarako gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Zergak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Jasotako transferentzia arruntak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9. Zordunak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.10. Hirigintza (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.11. Gomendioak (18. or.).</p> <p>VII. Denak Bat Erakunde Autonomoari buruzko ondorioak eta gomendioak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.1. Alderdi orokorrak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.2. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.3. Aurrekontuetako gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.4. Egoera-balantzea (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.5. Gomendioak (20. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (21. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (23. or.).</p> |
|--|--|

I. AITZINSOLASA

Etxauriko Udalari buruzko fiskalizazioa udal horretako zazpi zinegotzietatik lauk 2011ko urriaren 13an egindako eskaerari erantzunez egin zen. Lan hori Ganbera honen 2011ko Fiskalizazio Programan sartu zen 2011ko azkeneko hiruhilabetekoan.

Azterketa-lana 2011ko azaroan eta abenduan egin zen.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean erakundea eta aplikatzeak den araudia deskribatzen dira; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira. Laugarrenean Udalaren eta erakunde autonomoaren 2010eko kontuez, legeen betetze-mailaz eta finantza-egoeraz dugun iritzia ematen dugu; bosgarren atalean Udalaren eta Erakunde Autonomoaren Kontua osatzen duten egoera-orrietako batzuk sartzen ditugu. Seigarren eta zazpigarren ataletan Udalaren eta haren erakunde autonomoaren fiskalizazioetatik atera diren ondorioak eta gomendioak eskaintzen ditugu.

| Erakundea | Zenbatekoa | | Langileak, 2010-12-31 |
|------------------------------|------------|----------|--------------------------|
| | Gastuak | Sarrerak | |
| Etxauriko Udala | 734.354 | 644.431 | 5 |
| Denak Bat Erakunde autonomoa | 72.090 | 61.701 | Langilerik ez |

Etxauriko Udaleko langileria lanpostu hauek osatzen dute: Idazkari kontu-hartzaile bat, administrazioko ofizial bat, administrazioko bulegari bat, askotariko zerbitzuetako enplegatu bat eta garbiketako enplegatu bat. Idazkaria eta administrazioko enplegatuak Bidaurreta, Etxarri eta Zirizako udalekin batera partekatzen dira.

II.2 ARAUDIA

Etxauriko Udalari 2010eko ekitaldian aplikatzeak zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEAK DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Etxauri Iruñeko Merindadeko udal soil bat da; Iruñetik 14 kilometrora dago. 13,64 km² ditu eta 595 biztanle zeuzkan 2010eko urtarrilaren 1ean.

Bere jarduera garatzeko, Denak Bat izeneko Kultur Eta Kirol Patronatua sortu zen 1999ko azaroaren 25ean, kulturarekin, jaiekin eta aisialdiarekin zerikusirik duten zerbitzuak kudeatzeko.

Udalerrri hau Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, udalerrriko ur-hornidurako eta hondakin-bilketako zerbitzuak emateko.

Udal honen eta Mendeko Erakundearen 2010eko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarrienak hauek dira:

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, toki-entitateentzat ezarritako berezitasunekin.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.
- Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtza sortu zuena.
- 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Inspekzioaren onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.
- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-inarriak, Ordenantzak eta gainerako barne arauak.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Etxauriko Udalaren eta haren Erakunde Autonomoaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa (finantzari eta legezkotasunari buruzkoa) egin dugu.

Lana honen xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doa erakusten zuen, 2010eko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, eta ea aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko legeesparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz prestatu den.

- Legeen betetzea Udalak eta haren Erakunde Autonomoak 2010eko ekitaldian izandako jarduera finantzarioaz.

- Udalaren eta haren Erakunde Autonomoaren 2010eko ekitaldiko finantza-egoeraz.

Fiskalizazioaren irismena 2010. urteko Kontu Orokorra izan da, Udalbatzak 2011ko maiatzaren 18an onartua, berorren prestakuntza eta edukia Udalaren erantzukizuna baitira. Kontu Orokorraren osagaiak izango dira, 273/1998 Foru Dekretuaren arabera, Udalaren beraren Kontua, Erakunde Autonomoaren kontua eta Kontu Orokorraren eranskinak (memoria, kontu bateratua, zorraren egoera eta kontu-ikuskaritzaren txostena).

Ez da aurkezten memoriarik ez Udalaren eta Erakunde Autonomoaren Kontu bateraturik.

273/1998 Foru Dekretuaren arabera, Udalaren Kontuan eta Erakunde Autonomoaren Kontuan jasorik egon behar dute aurrekontuaren likidazioaren espedienteak, ekonomia- eta ondare-egoeraren eta finantza-egoeraren espedienteak (Egoerabalentzea eta Emaiza Ekonomikoa) eta eranskinak (diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartutako gastuen eta sartzekoen konpromisoen egoera, tasa eta prezio publikoen bidez finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko txostena). Ez da aurkeztu kostuen txostenik ez etorkizunerako konpromisoen egoerarik ere.

Lan hori Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-

eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

IV. IRITZIA

Lan honen irismenaren arabera, egin den arauzkotasunari buruzko fiskalizazioaren ondorioz, iritzi hau azaltzen dugu:

IV.1. UDALA

IV.1.1. Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion Kontua

Ez dago Udalaren ibilgetuen 6,5 milioi euroko kontabilitate-saldoa oinarritzen duen ondasunen inbentario baloratu eta eguneraturik.

Ez dira kontabilizatu ondoko partida hauei dagozkien 41.082 euroko sarrerak:

- Ziriza eta Etxarriko Udalek 2010. urtean Etxauriko Udaleko langileek egindako administrazio-zerbitzuengatik 28.001 euroko ekarpenak.

- 9.641 euroko baso-ustiaketak.

- Finantza-inbertsioak besterentzeagatik 3.440 euroko gainbalioak.

Aipatutako salbuespen horiek salbuetsita, Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doa erakusten du, 2010eko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, eta aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko legeesparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz prestatu da.

IV.1.2. Legezketasuna

2010eko ekainaren 1etik aurrera ez zen aplikatu langileen ordainsarien guztizko zenbatekoaren gainean ehuneko bosteko beherapena, ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legeak, defizit publikoa gutxitzeko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitate-ra egokitzen dituenak, agintzen duenaren kontra.

22.111 euroko gastu arruntak egin ziren, nahiz eta atxikitze juridikoaren poltsan horietarako aurrekontu-krediturik ez izan.

Aipatutako salbuespen horiek salbuetsita, 2010eko ekitaldian zehar, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

IV.1.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera finantzarioa.

Udalaren gastuak 734.354 eurokoak izan ziren guztira 2010ean, eta diru-sarrerak, berriz, 734.354 eurokoak.

| Adierazlea | 2010 |
|-------------------------------|----------|
| Diru-sarrera arruntak | 583.235 |
| Funtzionamendu-gastuak | 550.722 |
| Aurrezki gordina | 32.513 |
| Finantza-zama | 14.813 |
| Aurrezki garbia | 17.700 |
| Kapital diru-sarrerak | 61.297 |
| Inbertsioak | 168.819 |
| Kapital-emaizta | -107.522 |
| Aurrekontu-emaizta doitua | -60.409 |
| Zorpetze-maila | % 2,5 |
| Zorpetze-muga | % 5,5 |
| Zorpetze-ahalmena | % 3 |
| Zor bizia | 21.905 |
| Diruzaintza gerakina, guztira | 532.786 |

2010ean izan ziren diru-sarrera arruntak 583.235 eurokoak izan ziren eta aski izan ziren Udalaren funtzionamendu-gastuak (langileak, ondasun arruntak eta zerbitzuak emandako transferentzia arruntak) eta maileguaren interes- eta amortizazio-gastuak estaltzeko; azkenean 17.700 euroko diru-aurreztega egin zen.

2010. urtean zehar 168.819 euroko inbertsioak egin ziren; 61.297 euroko diru-laguntza bat jaso zen Estatuko Funtsetik askotariko erabileretarako biltegiaren obra egiteko. Gainerako inbertsioetarako ez zen diru-laguntzarik jaso, eta 2010ean egin zen aurrezki garbia ez zen aski izan inbertsio horiek finantzatzeko; horregatik, hain zuzen, 60.409 euroko emaitza doitua negatiboa izan zen aurrekontuaren likidazioa egiterakoan.

Udalak badu, hala ere, aurreko ekitaldietan hiri-gintza-aprobetxamenduen bidez sortutako likidezia. Horri dagokionez, 2010eko ekitaldia bukatzean 532.786 eurokoa zen diruzaintza-gerakina; horietatik 302.000 kontu korranteetan zeuden jarrita, eta 185.000 inbertsio-funts batean.

Udal honek 21.905 euroko zor bizia du 2010eko abenduaren 31n; zor hori 1997an udaletxeko obrak finantzatzeko hitzartutako mailegu bati dagokio, eta 2012an iraungiko da. 2010ean diru-sarrera arrunten % 2,5 mailegu horren finantza-zama ordaintzeko izan zen. Udalaren zorpetze-

Honako hauek dira Udalak 2010eko abenduaren 31n zuen finantza-egoeraren adierazpen nagusietako batzuk, finantzen egoera-orriak txosten honetako IV.1 atalean adierazi diren salbuespenekin doitu ondoren:

ahalmena diru-sarrera arruntan ehuneko hirukoa zen.

Laburtuz, bada, 2010eko ekitaldiko diru-sarrera arruntak aski izan ziren Udalaren funtzionamendu-gastuak eta maileguaren finantza-zama ordaintzeko; hala ere, guztiaren ondorioz izan zen aurrezki garbia diru-sarrera arruntan ehuneko hirukoa izan zen, eta ez zen aski izan egindako inbertsioak finantzatzeko. Hala eta guztiz ere, Udalak badu aurreko ekitaldietan sortutako diruzaintzako soberrakin nahiko on bat, hurrengo ekitaldietako gastuak finantzatu ahal izateko.

IV.2. DENAK BAT ERAKUNDE AUTONOMOA

Lan honen irismenaren arabera, egin den arauzkotasunari buruzko fiskalizazioaren ondorioz, iritzi hau azaltzen dugu:

IV.2.1. Erakunde autonomoaren 2010eko ekitaldiko kontua

Ez da jasota ageri ibilgetu materialeko 16.971 euroko saldoa bermatzen duen ondasunen inbentariarik.

Ez daude erregistratuta 2010eko abenduaren 31rako amortizatzeko dagoen mailegu bati dagozkion 7.846 euroak.

Aipatutako salbuespen horiek salbuetsita, Denak bat Erakunde Autonomoaren 2010eko eki-

taldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten du, 2010eko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruz, eta aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz prestatu da.

IV.2.2. Legezkotasuna

Atxikitze juridikoaren poltsan zegokion krediturik ez zuten 9.815 euroko gastuak egin dira, aurrekontuetan dagokien aldaketa izapidetu gabe.

| | |
|---|---------|
| Adierazlea | 2010 |
| Diru-sarrera arruntak | 61.701 |
| Funtzionamendu-gastuak | 66.441 |
| Aurrezki gordina | -4.740 |
| Finantza-zama | 5.647 |
| Aurrezki garbia | -10.387 |
| Kapital diru-sarrerak | 0 |
| Inbertsioak | 0 |
| Aurrekontu-emaizta doitua | -10.387 |
| Zorpetze-maila | % 9 |
| Zor bizia | 7.846 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | -1.530 |

Erakunde autonomo honen diru-sarrera arruntak ez ziren aski izan bere funtzionamendu-gastuak finantzatzeko. Honi dagokionez, aipatzekoa da 2010ean igerilekuak izan zituen diru-sarreraren beherakada nabarmena; beherakada hori Udalaren ekarpenak izan zuen gorakadak -4.000 euro izatetik 12.000 euro izatera aldatu baitzen- berdindu zuen, partez bederen.

2010ean maileguaren ondorioz zuen 5.647 euroko finantza-zamari erantzuteko baliabide arruntik ere ez zen sortu.

Horregatik, bada, erakunde autonomo honek ez zuen aurrezterik egin 2010ean. Ez du zorpetze-

Aipatutako salbuespen hori salbuetsita, 2010eko ekitaldian zehar, erakunde autonomo honen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

IV.2.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa.

Denak bat erakunde autonomoak 72.090 euroko gastuak eta 61.701 euroko sarrerak izan zituen 2010ean.

Hona 2010eko abenduaren 31n zuen egoera finantzarioaren adierazle batzuk:

ahalmenik eta bere diru-sarrera arrunten ehuneko 9ko zorpetze-maila du; zorpetze-maila hori 2012an amaituko den eta 2010ean ere estali ezin izan zen 7.846 euroko zor bizi bati dagokio.

Beste alde batetik, diruzaintza-gerakina -1.530 eurokoa da eta, horrenbestez, ondoko ekitaldietan gastuak finantzatzeko likideziaz ere ez du.

Laburtuz, bada, bere funtzionamendu-gastuak eta bere zorraren finantza-zama estaltzeko diru-sarrera arruntik ez izatea, zorpetzeko ahalmenik batere ez izatea eta likidezia falta dira erakunde autonomo honek 2010eko abenduaren 31n duen finantza-egoeraren ezaugarri nagusiak.

V. 2010eko KONTU OROKORREN EGEO- RA-ORRIA

Ondoren Kontu Orokorra osatzen duten egoera-orrietako batzuk aurkezten dira txosten honetako iritzizko IV.1. atalean zehaztutako salbuespenak kontuan hartuta diturik.

Etxauriko Udalak ez zuen prestatu 2010eko Kontu Orokor bateratua; horregatik, hain zuzen, Udalaren eta Erakunde Autonomoaren egoera-orriak atxikitzen ditugu.

V.I. ETXAURIKO UDALAREN KONTUA

V.1.1 Aurrekontuaren betetze-maila

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko kredituak | Aitortutako betebeharrak | Betetakoa (%) | Ordaindutakoa | Ordainketak (%) | Ordaintzeke dagoena |
|-----------------------------------|---------------------|-----------|------------------------|--------------------------|---------------|---------------|-----------------|---------------------|
| 1.Langile gastuak | 247.800 | 0 | 247.800 | 244.438 | % 99 | 241.225 | % 99 | 3.213 |
| 2.Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 255.650 | 0 | 255.650 | 266.050 | % 104 | 251.533 | % 95 | 14.517 |
| 3.Gastu finantzarioak | 1.650 | 0 | 1.650 | 435 | % 26 | 435 | % 100 | 0 |
| 4.Transferentzia arruntak | 58.120 | 0 | 58.120 | 40.234 | % 69 | 39.734 | % 85 | 7.259 |
| 6.Inbertsio errealak | 167.743 | 113.519 | 281.262 | 168.819 | % 60 | 158.746 | % 94 | 10.073 |
| 7.Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0 | - | 0 | - | 0 |
| 8.Finantza-aktiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | - | 0 | - | 0 |
| 9.Finantza-pasiboak | 13.700 | 0 | 13.700 | 14.378 | % 105 | 14.378 | % 100 | 0 |
| Gastuak, guztira | 744.663 | 113.519 | 858.182 | 734.354 | % 86 | 706.051 | % 96 | 28.303 |

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Diru-sarreraren kapituluak | Hasierako aurreikuspenak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Betetakoa (%) | Kobrantzak (%) | Kobrantzak (%) | Kobratzeke |
|--|--------------------------|-----------|-----------------------------|------------------------------|---------------|----------------|----------------|------------|
| 1. Zuzeneko zergak | 199.600 | 0 | 199.600 | 213.116 | % 107 | 200.386 | % 94 | 12.730 |
| 2. Zeharkako zergak | 65.955 | 0 | 65.955 | 49.392 | % 75 | 45.908 | % 93 | 3.484 |
| 3.Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 55.150 | 0 | 55.150 | 24.536 | % 44 | 23.739 | % 97 | 797 |
| 4. Transferentzia arruntak | 249.227 | 0 | 249.227 | 254.774 | % 102 | 226.585 | % 99,9 | 28.189 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak | 20.430 | 0 | 20.430 | 41.417 | % 203 | 31.776 | % 77 | 9.641 |
| 6. Inbertsio errealen besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0 | - | 0 | - | 0 |
| 7. Kapital-transferentziak | 113.714 | 61.297 | 175.011 | 61.297 | % 35 | 52.102 | % 85 | 9.195 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0 | 52.222 | 52.222 | 0 | % 0 | 0 | - | 0 |
| 9. Finantza-pasiboak | 40.587 | 0 | 40.587 | 0 | % 0 | 0 | - | 0 |
| Diru-sarrerak guztira | 744.663 | 113.519 | 858.182 | 644.532 | % 75 | 580.496 | % 90 | 64.036 |

Ondoko doitze hauek egin dira: 4. kapituluaren oraindik kobratzeko dauden aitortutako eskubideei dagozkien 28.000 euro gehitu dira, eta 5. kapituluaren 13.081, horietatik 9.641 kobratzeko daudenak eta gainerakoa, 3.440, dagoeneko kobratuak.

Aurrekontuko emaitza

| Kontzeptua | 2010 | 2009 |
|--|----------|----------|
| Aitorturiko eskubideak | 644.532 | 993.279 |
| (Aitorturiko betebeharrak) | -734.354 | -952.061 |
| Aurrekontuko emaitza | -89.222 | 41.218 |
| (Finantzaketaren desbideratze positiboak) | -21.036 | -19.702 |
| Finantzaketaren desbideratze negatiboak | 50.449 | 2.558 |
| Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak | 0 | 0 |
| Aurrekontu-emaitza doitua | -60.409 | 24.074 |

Diruzaintza-gerakina, 2010eko abenduaren 31n

| Kontzeptua | 2010 | 2009 |
|---|-----------|----------|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 267.670 | 414.348 |
| Aurrekontua: Sarrerak: aurtengo ekitaldia | (1)64.036 | 84.953 |
| Aurrekontua: Sarrerak: Itxitako ekitaldiak | 144.261 | 139.974 |
| Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 199.468 | 322.826 |
| (Nekez kobratzeko eskubideak) | -140.095 | -133.405 |
| Aplikatzeko dauden diru-sarrerak | 0 | 0 |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 88.771 | 186.427 |
| Aurrekontua: Sarrerak: aurtengo ekitaldia | 28.304 | 126.305 |
| Aurrekontua: Sarrerak: Itxitako ekitaldiak | 6.569 | 2.914 |
| (Aplikatzeko dauden gastuak) | 0 | 0 |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak | 53.898 | 57.208 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 302.026 | 368.306 |
| + Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak | 51.861 | 1.412 |
| = Diruzaintza-gerakina, guztira | 532.786 | 597.639 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 21.036 | 0 |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | 453.546 | 501.441 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 58.204 | 96.198 |

(1) Diru-sarreraren betetze-mailaren egoera-orrian egindako doitzeen arabera zuzendutako zenbatekoa.

V.1.2. 31ko abenduaren 31ko egoera-balantzea**AKTIBOA**

| Deskribapena | 2010 | 2009 |
|--|------------------|------------------|
| IBILGETUA | 6.564.265 | 6.395.139 |
| Ibilgetu materiala | 1.598.937 | 1.443.772 |
| Ibilgetu ez-materiala | 64.672 | 64.672 |
| Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 4.818.054 | 4.804.093 |
| Herri-ondasunak | 82.603 | 82.603 |
| ZIRKULATZAILEA | 672.148 | 916.059 |
| Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak | 343.729 | 462.800 |
| Aurrekontuko zordunak | 26.393 | 84.853 |
| Kontu finantzarioak | 302.026 | 368.306 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | 7.236.413 | 7.311.198 |

PASIBOA

| Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|------------------|------------------|
| FUNTS BEREKIAK | 7.147.643 | 7.124.771 |
| Ondarea eta erreserbak | 7.156.609 | 6.906.149 |
| Ekitaldiko emaitza ekonomikoa | -8.966 | 218.622 |
| EPE LABURREKO ZORRAK | 88.770 | 186.427 |
| Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 60.466 | 60.122 |
| Aurrekontuko hartzekodunak | 28.304 | 126.305 |
| PASIBOA, GUZTIRA | 7.236.413 | 7.311.198 |

V.1.3. Ekonomia eta ondare emaitza

| ZORRA | | |
|---|---------------------|---------------------|
| Deskribapena | Zenbatekoa, 2010 | Zenbatekoa, 2009 |
| 61 Langile-gastuak | 244.438 | 247.361 |
| 62 Gastu finantzarioak | 435 | 1.530 |
| 64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak | 266.050 | 219.538 |
| 67 Transferentzia arruntak | 40.234 | 66.113 |
| D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa | 9.005 | 0 |
| D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak | 79 | 27 |
| D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa | 8.966 | 0 |

| HARTZEKO | | |
|--|---------------------|---------------------|
| Deskribapena | Zenbatekoa, 2010 | Zenbatekoa, 2009 |
| 70 Salmentak | 24.536 | 38.061 |
| 71 Ondasunaren eta enpresaren errenta | 28.336 | 5.206 |
| 72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | 226.414 | 214.139 |
| 73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 27.297 | 26.465 |
| 76 Transferentzia arruntak | 226.773 | 244.205 |
| 77 Kapitalaren gaineko zergak | 8.796 | 2.196 |
| 78 Bestelako diru-sarrerak | 0,00 | 222.919 |
| H80 Ekitaldiaren emaitza korrantea | 0 | 218.649 |
| H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak | 118 | 0 |
| H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa | 0 | 218.622 |

V.2. DENAK BAT ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2010eko EKITALDIKO KONTUA

V.2.1. 2010eko Aurrekontuaren betetze-egoera.

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko kredituak | Aitortutako betebeharrak | Betetzea (%) | Ordain-dutakoa | Ordain-ketak (%) | Ordain-tzeke dagoena |
|-----------------------------------|---------------------|-----------|------------------------|--------------------------|--------------|----------------|------------------|----------------------|
| 2.Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 57.200 | 0 | 57.200 | 65.779 | % 115 | 63.401 | % 96 | 2.378 |
| 3.Gastu finantzarioak | 700 | 0 | 700 | 274 | % 39 | 274 | % 100 | 0 |
| 4.Transferentzia arruntak | 0 | 0 | 0 | 664 | % 0 | 664 | % 100 | 0 |
| 9.Finantza-pasiboak | 4.800 | 0 | 4.800 | 5.373 | % 112 | 5.373 | % 100 | 0 |
| Gastuak, guztira | 62.700 | 0 | 62.700 | 72.090 | % 114,98 | 69.712 | % 97 | 2.378 |

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Diru-sarren kapituluak | Hasierako aurreikuspenak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Betetakoa (%) | Kobrantzak | Kobrantzak (%) | Kobratzeke |
|--|--------------------------|-----------|-----------------------------|------------------------------|---------------|------------|----------------|------------|
| 3.Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 49.600 | 0 | 49.600 | 38.416 | % 77 | 37.564 | % 98 | 852 |
| 4. Transferentzia arruntak | 3.000 | 0 | 3.000 | 14.320 | % 477 | 14.320 | % 100 | 0 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak | 10.100 | 0 | 10.100 | 8.965 | % 889 | 8.965 | % 100 | 0 |
| Diru-sarrerak guztira | 62.700 | 0 | 62.700 | 61.701 | % 98 | 60.849 | % 99 | 852 |

Aurrekontuko emaitza

| Kontzeptua | 2010 | 2009 |
|----------------------------|---------|--------|
| Aitorturiko eskubideak | 61.701 | 78.421 |
| (Aitorturiko betebeharrak) | -72.090 | 67.901 |
| Aurrekontuko emaitza | -10.389 | 10.520 |
| Aurrekontu-emaitza doitua | -10.389 | 10.520 |

Diruzaintza-gerakina, 2010eko abenduaren 31n

| Kontzeptua | 2010 | 2009 |
|--|--------|-------|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 2.027 | 1.910 |
| Diru-sarrereren aurrek.: indarreko ekitaldia | 852 | 820 |
| Diru-sarrereren aurrek.: indarreko ekitaldia | 866 | 426 |
| Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 955 | 955 |
| (Nekez kobratzeko eskubideak) | -646 | -291 |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 3.995 | 2.503 |
| Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia | 2.378 | 900 |
| + Gastuen aurrek.: itxitako ekitaldiak | 912 | 912 |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak | 705 | 691 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 438 | 9.807 |
| = Diruzaintza-gerakina, guztira | -1.530 | 9.214 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | -1.530 | 9.214 |

V.2.2. 31ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

AKTIBOA

| Deskribapena | 2010 | 2009 |
|--|--------|--------|
| IBILGETUA | 16.971 | 16.971 |
| Ibilgetu materiala | 16.971 | 16.971 |
| ZIRKULATZAILEA | 3.111 | 12.008 |
| Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak | 1.821 | 1.381 |
| Aurrekontuko zordunak | 852 | 821 |
| Kontu finantzarioak | 438 | 9.806 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | 20.082 | 28.979 |

PASIBOA

| Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|--------|--------|
| FUNTS BEREKIAK | 16.087 | 26.476 |
| Ondarea eta erreserbak | 21.103 | 8.092 |
| Ekitaldiko emaitza ekonomikoa | -5.015 | 18.384 |
| EPE LABURREKO ZORRAK | 3.995 | 2.503 |
| Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 1.617 | 1.603 |
| Aurrekontuko hartzekodunak | 2.378 | 900 |
| PASIBOA, GUZTIRA | 20.082 | 28.979 |

V.2.3. Emaidza ekonomikoa

| ZORRA | | |
|---|--------|--------|
| Deskribapena | 2010 | 2009 |
| 62 Gastu finantzarioak | 274 | 703 |
| 64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak | 65.779 | 59.334 |
| 67 Transferentzia arruntak | 664 | 0 |
| D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa | 5.015 | 0 |
| D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa | 5.015 | 0 |

| HARTZEKO | | |
|--|--------|--------|
| Deskribapena | 2010 | 2009 |
| 70 Salmentak | 38.416 | 60.943 |
| 71 Ondasunaren eta enpresaren errenta | 8.965 | 10.593 |
| 76 Transferentzia arruntak | 14.320 | 6.885 |
| H80 Ekitaldiaren emaitza korrantea | 0 | 18.384 |
| H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa | 0 | 18.384 |

VI. UDAL HONI BURUZKO ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Ondoren Udal honen arauzkotasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorio nagusiak eta haiei dagozkien aholkuak deskribatzen dira.

VI.1. 2010eko AURREKONTUA ETA KONTUA

Udalaren 2010erako Aurrekontua 2010eko ekainaren 1ean egin zen Osoko Bilkuran onartu zen, eta behin betiko onarpena 2011ko otsailean argitaratu zen. 744.663 euroko diru-sarrera eta gastuen aurreikuspenak ematen zituen.

2010eko diru-sarrerak 644.532 eurokoak izan ziren. Horren ehuneko 39,5 jasotako transferentzia transferentzia arruntei dagokio, ehuneko 33 zuzeneko zergei, ehuneko 9,5 Estatuko Funtsaren diru-laguntza bati, ehuneko 8 Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari, ehuneko 6 ondare bidezko diru-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak dira eta ehuneko 4 tasak eta bestelako diru-sarrerak.

2010eko ekitaldia burutzean, diru-sarreraren ehuneko 90 kobratuta zegoen.

Aitortutako betebeharrak 734.354 euro egin zuten 2010ean, eta betetze-maila behin betiko kredituen % 86koa izan zen. Ehuneko horrez behetik daude inbertsioak eta transferentzia arruntak; hauen betetze-maila ehuneko 60 eta ehuneko 69koa izan baita.

Gastu nagusiak ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkienak dira, gutzitakoaren ehuneko 36; langileei dagozkien gastuak ehuneko 33 dira eta inbertsioei dagozkienak 2010ean egin ziren gastu guztien ehuneko 23.

2010eko aitortutako gastuen ehuneko 96 ordainduta zeuden ekitaldi hori bukatu zenerako.

Gastu horiek kontabilizatzean izandako atzerapenak eraginda, betebeharra aitortu baino lehen egin zen ordainketa. Udalbatzak faktura onartu ondoren, ordainketa egiteko agindua ematen da. Geroztik gastua erregistratzen da eta idazkariak, alkateak eta diruzainak betebeharraren aitortzako kontabilitateko agiria sinatzen dute.

2010eko abenduaren 31n amortizatzeko dagoen mailegua, 21.905 eurokoa, ez da agertzen zor gisa egoera-balantzearen pasiboan.

VI.2. LANGILEAK

Langileei dagozkien gastuek 244.438 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 99, alegia. 2010eko ekitaldian sorrarazitako gastuen gutzitakoaren ehuneko 33 egiten dute. Gastuaren ehuneko 41 funtzionarioen ordainsariei dagokie.

Langileei dagozkien gastuak 2009an baino ehuneko 1 gutxiago izan ziren 2010ean, alkatearen ordainsariak ehuneko 33 jaitsi zirelako eta 2010ean administrazioko bulegariaren ordezkariak ordaindu beharrik izan ez zelako batez ere. Beste alde batetik, nabarmentzekoa da garbiketako ordainsarien gorakada, zerbitzu hori ematen zuen langilea aldatu delako sortua.

Udalak 2010ean izan zuen plantilla organikoaren hasierako onespina 2009ko abenduaren 1ean eman zen, eta plantilla behar bezala onartuta handik urtebetera argitaratu zen, 2010eko abenduaren 31n.

2010erako plantillan lau funtzionario-lanpostu eta lan kontratupeko langile bat daude, aurreko ekitaldiko berberak; hona lanpostu horien ezaugarriak:

| Lanpostua | Maila | Egoera |
|------------------------------------|-------|--------|
| Funtzionarioak: | | |
| –Idazkari kontu-hartzailea | A | Lanean |
| –Administrari laguntzailea | D | Lanean |
| –Askotariko zerbitzuetako langilea | D | Lanean |
| –Ofizial administraria | C | Hutsik |
| Langile kontratudunak: | | |
| –Garbitzailea | E | Lanean |

2010ean onartutako lan-eskaintza publikoa administrazioko ofizialaren lanpostua betetzeko izan da. Eskaintza horretarako deia 2010eko abenduaren 24ko Osoko Bilkurak onartu zuen, eta 2011ko otsailean argitaratu zen.

Egin den fiskalizazioaren ondorioa da langileen ordainsariak egokiak direla, oro har, eta langileen kudeaketa aplikatzeko den legeriaren arabera egin zela, ondoko salbuespen hauek salbu:

Langileen ordainsariak ez ziren urritu 2010eko ekainaren 1etik aurrera, ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legeak, defizit publikoa gutxitzeko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera egokitzen dituenak, agintzen duenaren kontra.

Idazkari kontu-hartzailearen bost hilabeteko ordezkapena horretarako laguntza-kontratua Udalari lege-aholkularitzako zerbitzuak ematen dizkion enpresari zuzenean esleitu zen, eta 12.914 euroko gastua eragin zuen. Idazkariaren eta

Kontu-hartzailearen eginkizun publikoa horretarako titulazio egokia duen dagokion erakundeko plantillako langile finko batek edo dei publikoz aukeratuta aldi baterako kontratu administratiboa duten langileek bete behar dute.

3.780 euro kontabilizatu dira langile-gastu gisa, beste enpresek emandako zerbitzuen kontzeptupean.

VI.3. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 266.050 eurokoak izan ziren, aurreikusitako kredituaren ehuneko 104, hain zuzen. 2010eko ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko 36 egiten dute.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastu hauek berrikusi dira:

| Kontzeptua | Gastua, 2010 | Portzentajea 2 |
|--------------------------------------|--------------|----------------|
| Argi publikoak | 34.821 | 13 |
| Jardueretako monitoreak | 30.608 | 12 |
| Jaietako gastuak | 28.661 | 11 |
| Parkea eta lorategien mantenimendua | 17.955 | 7 |
| Bidaiari-garraioa | 14.579 | 5 |
| Aholkularitza ekonomiko-finantzarioa | 12.422 | 5 |
| Uzta alokatzea | 9.754 | 4 |
| Katastroaren mantenimendua | 2.746 | 1 |
| Bideen mantentze-lanak | 2.145 | 1 |

Gastuak, oro har, onetsita eta kontrolatuta, dagokien fakturretan edo bestelako frogagirietan oinarrituta eta ordainduta daude.

Kontabilitateari dagokionez, ez da beti bete sortzapenaren printzipioa. Hala, adibidez, 2010ean ondasun arrunten eta zerbitzuen zegozkien 34.029 euroko gastuak kontabilizatu ziren, izatez 2009ko

ekitaldiari zegozkionak, eta ez ziren kontabilizatu 2010ean sortutako 24.622 euroko gastuak.

Ez da ageri lorategien mantenu-zerbitzua, 2010ean 17.794 euroko gastua eragin zuena, kopuru horri dagokion esleipen-prozeduraz esleitu zenik.

VI.4. INBERTSIOAK

2010eko inbertsioak 168.819 eurokoak izan ziren. Udalaren gastu guztien ehuneko 23 da.

Udalak 2010ean esleitu zituen eta ondoko obra hauei dagozkien inbertsioak berrikusi ziren:

| Inbertsioa | Esleipen-data | Esleitzeko prozedura | Esleipeneko prezioa | Gastua, 2010 |
|---|-----------------------|---------------------------------------|---------------------|--------------|
| Erabilera anitzeko biltegia | 2010eko apirilaren 26 | Europar | 113.519 | 74.561 |
| Igerilekuko jantzilekuaren estalkia | 2010eko apirilaren 19 | Batasunean publizitaterik egin gabeko | 40.129 | 49.488 |
| Hilerriaren urbanizazio-lanetarako proiektua erredaktatzea eta obra zuzentzea | 2010eko otsailaren 17 | prozedura negoziatua | 4.435 | 2.900 |

Egiatzatu dugunez, oro har, kontratazio-espeditentearen izapidetzea eta lanen esleipena eta exekuzioa kontratazio administratiboa erregulatzen duen arautegiari egokitzuz egin dira, eta gastuak onartuta, kontrolatuta, justifikatuta eta ordainduta daude.

Dena den, salbuespen hauek ere aipatu behar ditugu:

- Askotariko erabileretarako biltegiaren obra zazpi hilabete eta erdiko epean burutu zen; epe hori esleipenean zehaztutako hilabete eta erdiko epea baino luzeagoa izan zen. Obren bigarren ziurtagiria 2011ko otsailean aurkeztu zen, 2010eko abenduaren 9an formalizatu zen harrera-akta baino geroago.

- Igerilekuaren estalkiaren inbertsioa 49.488 eurokoa izan zen, aurkeztu zen obren ziurtagiriaren arabera; esleipenean zehaztutako zenbatekoa baino ehuneko 23 garestiago. Ez dago jasota dagokion kontratu-aldaketako espeditentea izapidetu zenik.

VI.5. TRANSFERENTZIA ARRUNTETARAKO GASTUAK

Transferentzia arruntetarako gastuak 40.234 euro izan ziren 2010ean. Zenbateko hori Udalaren gastu guztien ehuneko 5 da. Gastuen exekuzio-maila hasierako kredituen ehuneko 69 izan zen.

2009an baino ehuneko 39 gutxiago izan ziren; arrazoi hauek izan ziren batez ere horretarako:

- 2010ean ez zen kontabilizatu euskara-zerbitzurako 6.759 euroko ekarpena. 2009an 14.925 euro kontabilizatu ziren, 2006, 2007 eta 2008 urteei zegozkienak, eta 7.000 euro 2009 urteari zegozkienak.

- Oinarrizko gizarte-zerbitzua: 2009an 16.969 euro kontabilizatu ziren, 2007 eta 2008 urteei zegozkienak. 2010ean kontabilizatutako 4.704 euroko ekarpena 2009 urteari dagokio.

- Denak Bat erakunde autonomorako ekarpena ehuneko 201 handitu zen, eta 2009an 4.000 eurokoa izatetik 12.000 eurokoa izatera jaso zen 2010ean.

2010an egindako transferentzia nagusiak hauek izan dira:

| Kontzeptua | Gastua, 2010 | Portzentajea 4 |
|---------------------------------------|--------------|----------------|
| Denak Bat Erakunde autonomoa | 12.051 | 30 |
| Argia Funtzionamendu gastuak | 9.543 | 24 |
| Oinarrizko gizarte-zerbitzua | 4.704 | 12 |
| Ibarreko eguneko gastuak | 3.895 | 10 |
| Ehiza-barrutia | 2.315 | 6 |
| Ekoizpen ekologikoaren kontrola | 1.437 | 4 |
| Kultur elkartearentzako diru-laguntza | 1.200 | 3 |

Gastu horiek azterturik, gastuak oro har onartuta, kontrolatuta, justifikatuta eta ordainduta daudela ateratzen dugu ondorio gisa.

Gastuen kontabilizatzeko moduari dagokionez, aurreko ataletan adierazten den bezala, Euskara-zerbitzurako eta Oinarrizko Gizarte-zerbitzurako ekarpenak kontabilizatzerakoan ez da bete sortza-penaren printzipioa.

VI.6. ZERGAK

Udalaren zerga bidezko diru-sarrerak 279.681 eurokoak izan ziren, eta zerga-figura hauei dagozkien batez ere:

- Hirilurren kontribuzioa: 163.882 euro
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ): 49.392 euro.
- Zirkulazioaren gaineko zerga: 27.297 euro.

| Zerga | Udala | Toki Ogasun. Foru Legea |
|--|-----------------------------------|----------------------------|
| Lurraren kontribuzioa | 0,37 hirilurra 0.80 landalurra | 0,1-0,5 |
| Jarduera ekonomikoen gaineko zerga | 1,4 | 1-1,4 |
| Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga | 12 | 8-20 |
| Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga | 5 | 2-5 |

2010ean sorrarazitako zuzeneko zerga guztien, EIOZaren eta tasa eta prezio publikoen lagin bat aztertu da. Fiskalizazio horren ondorioztat ateratzen da zerga eta prezio publikoak onartuta daudela, dagokien ordenantzan edo zerga ezartzeko erabakian bermatzen direla eta dagokien bezala likidatuta eta kobratuta daudela oro har. Aipatzekoa da Udal honek egindako obraren egiazko kostuaren arabera egiten duela EIOZaren behin betiko likidazioa.

Nolanahi ere, hutsegite hauek hauteman ditugu fiskalizatu ditugun zerga eta prezio publikoen kudeaketari dagokionez:

- Hirilurren kontribuzioa ehuneko 0,38ko zerga-tasa betez igorri zen, onartuta zegoen ehuneko 0,37 tasaz igorri ordez. Horren ondorioz, 2010ean 4.313 euro gehiago sartu dira, hirilurren kontribuzioarengatik.
- 2002ko abenduaren 23az gero Udalak ez du eguneratu bere balorazio-ponentzia eta ez da egokitu lurraren kontribuzio-tasa bakarrera, eta hirilurren kontribuzioari eta landalurren kontribuzioari aplikatu dakizkizkiekeen tasak bereizten jarraitzen du.

- Tasak eta prezio publikoak: 2.994 euro irekitzeko baimenengatik, 2.715 ludotekarengatik, 2.425 telefonikarengatik, 2.089 telezabalkuntzako tasarengatik eta 2.010 elektrizitate-enpresengatik, besteren artean.

Udalak derrigorrezko zerga guztiak ordainarazten ditu: landalurren kontribuzioa, hirilurren kontribuzioa, zirkulazioaren gaineko zerga, jarduera sailkatuen gaineko zerga, hirilurren balio-igoeraren gaineko zerga eta EIOZ.

2009ko abenduaren 1ean egindako Osoko Bilkuran karga-tasak, ludoketa-zerbitzurako eta igerilekurako prezioak (organismo autonomoak kudeatzen ditu) eta banaketa-sarera lotzeko tasak onartu ziren.

Ondoko koadro honetan adierazten dira onartu ziren zerga-tasak eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak agintzen dituenekiko alderaketa:

VI.7. JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Transferentzia arruntez izandako diru-sarrerak 226.773 eurokoak izan ziren; horietatik ehuneko 70 toki ogasunen funtsari dagokio.

Jaso diren beste transferentzia arrunt batzuk udalbiltzarkideentzako ordainsariak finantzatzeko diru-laguntza -15.561 euro-, NPB Kanpainagatiko 19.792 euroko diru-laguntza eta Bidaurretako Udalak partekatzen diren langileengatik emandako 22.723 euroak izan dira.

Sarrera horiek guztiak 2010ean kobratu ziren.

Ez dira kontabilizatu Etxarri eta Zirizako Udalei dagozkien ekarpenak, 28.001 euro egiten dutenak.

VI.8. ONDAREAREN DIRU-SARRERAK ETA HERRI-APROBETXAMENDUAK

Udalaren zerga bidezko diru-sarrerak 2010 eurokoak izan ziren, eta zerga-figura hauei dagozkien batez ere:

- Baso-ustiaketak (makalak) 25.424 euro.

- Ehiza-barrutia 2.315 euro

Baso-ustiaketa enkante publikoz esleitu zen; enkante horretan Udalaren jabetzako makalak eta pertsona partikularren jabetzakoak sartu ziren. Udalari zegokion diru-sarrera, zegozkion gastuak eta gainerako jabeei likidatutakoak kendurik, 35.065 eurokoa izan zen; 2010eko sarreratzat 25.224 euro baizik ez ziren erregistratu, hala ere.

Ez zen erregistratu ondarearen diru-sarrera gisa 2010ean inbertsio-funts bateko partaidetzen zati bat salduz lortutako 3.440 euroko gainbalioa ere.

Udalak finantza-erakundeetan dituen kontu korronteen ordainketa ia hutsa izan zen. 2010. urtean Udal honek hiru finantza-erakundetan zeuzkan jarrita kontuak; kontu horietan 283.000 euro zeuden guztira. Kontu horietako batean gutxienez, dirua ateratzeko eskubidea baimendu guztiek zuten banaka eta era berean.

VI.9. ZORDUNAK

Zordunen zorra 170.654 eurokoa zen 2010eko abenduaren 31n; horietatik 26.393 euro 2010eko ekitaldiari zegokion eta gainerakoa, 144.261 euro, dagoeneko bukatuta zeuden ekitaldiei.

Borondatezko zerga-ordainketarako epea bukatu ondoren, premiamenduzko prozeduraz kudeatzen du Udalak diru-sarrera publikoen kobrantza aldi exekutiboan.

Ekitaldi burutueto zorrorei dagozkien 144.261 euroetatik, 140.095 euro nekez kobratzekotzat jo ziren, eta deskontatu egin ziren diruzaintza-gerakina kalkulatzera. 2004tik 2007ra bitarteko urbanizazio-kuotei dagozkienak -75.114 euro- eta 1996tik 2009ra bitartean sortutako hirilurren kontribuzioari dagozkionak -37.666 euro- dira nagusiak.

VI.10. HIRIGINTZA

2010eko abenduaren 31n indarrean daude 1994an onetsitako arau subsidiarioak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen -2006ko apirilera bitartekoa- indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

Etxauriko Udalaren 2011ko urtarrilaren 19ko Osoko Bilkurak Udalaren Plan Orokorri hasierako onespina ematea erabaki zuen, eta onspen hori 2011ko otsailaren 9an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

2010eko urtean zehar hirigintza-hitzarmen hauek onartu zituen Udalbatzak:

- 1. poligonoko (EB 4W) 21,23, 477 eta 480 jabeekiko planeamendurako hitzarmena.
- Bi merkataritza-enpresekiko hitzarmena, 2. sektorean etxebizitza babestuak eraikitzeke eraiki-garritasuna handitzeko.

Bi hitzarmen horiek tramitatzerakoan hirigintzari buruzko legeria bete dela egiaztatu da.

Ez dago jasota Lurzoruaren Udal Ondarea osatzen duten ondasunen inbentariarik eta erregistro-rik dagoenik.

VI.11. GOMENDIOAK

Udal honen arauzkotasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorioei dagokienez, ondoren adierazten ditugun aholku hauek eskaintzen ditugu:

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatu eta eguneratu bat onestea.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen kudeaketa Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik egitea, eta udal ondasunen erregistro orokorrean adieraztea eta lurzoruaren udal ondarearen Erregistroa sortzea.*

- *Langileei dagozkien ordainketen beharpe-nari dagokionez, 12/2010 Foru Legean aurreikusitako arauak betetzea.*

- *Aurrekontua indarrean egongo den ekitaldia hasi baino lehen onestea.*

- *Gastuetarako kredituen muga-izaera errespetatzea eta behar adinako aurrekontu-kontsignaziorik ez duten gastuak egin baino lehen aurrekontuetan dagoenik aldaketak onartzea.*

- *Eragiketa ekonomikoak kontabilizatzean atzerapenak saihestea, kontabilitatea erabakiak hartzerakoan informazio-sistema egokia izan dadin.*

- *Eragiketa ekonomikoak sortzapenaren printzipioa kontuan hartuta kontabilizatzea. Gastuei dagokienez, ordainketa egiteko agindua emateko fasea baino lehen obligazioaren aitortzea erregistratzea.*

- *Kontratazio administratiboari buruzko legeria betetzea lanak agindutako epean burutzeari, 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoak kontratu-aldaketako espedienteak egiteko eskatzen duen kasuetan dagoenik kontratu-aldaketa izapidetzeari dagozkion guztietan, besteren artean.*

- *Zerbitzuak zerbitzu bakoitzaren zenbatekoari dagoenik esleipen-prozeduraren arabera kontratatzea.*

- *Finantza-erakundeekin kontu korrontek ordaintzeko zein interes-tasa aplikatu negoziatzea. Sinadura mankomunatuak eskatzea, finantza-erakundeetan kontuen funtsak erabili ahal izateko.*

- *Itxitako ekitaldietako zordunak berrikustea eta, hala badagokio, araztea, 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldietako hirigintzako kuotei dagozkienak, besteren artean, eta baita horietan sortutako BEZA ere.*

VII. DENAK BAT ERAKUNDE AUTONOMOARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren Denak Bat erakunde autonomoaren arauzkotasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorio nagusiak eta haiei dagozkien aholkuak adierazten dira.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

2010erako Aurrekontuari 2010eko ekainaren 1ean eman zitzaion lehen onarpena, eta behin betiko onarpena 2011ko otsailean argitaratu zen. Bi izapide horiek batera egin ziren Udalaren aurrekonturako eta erakunde autonomoaren aurrekonturako.

Erakunde autonomoaren aurrekontuan 62.700 euroko diru-sarrerera eta gastuen aurreikuspenak egiten ziren. Gastuak 72.090 eurokoak izan ziren guztira, eta diru-sarrerak, berriz, 61.701 eurokoak; horrela, hain zuzen 10.389 euroko defizita izan zen aurrekontuaren emaitzan.

Erakunde autonomo honen antolamenduari dagokionez, bi organo kolegiatu izan behar dituela aurreikusten da estatutuetan: Zuzendaritza-batzordea, erakundea gobernatzeko eta administratzeko, eta erabiltzaileen Biltzar Nagusia. Ez da ageri organo kolegiatu horien erabakiak jasotzen dituen Akta Libururik badagoenik.

Erakundearen estatutuetan jasota dago, orobat, erakunde honek behar diren langileak izango dituela, eta haien kopurua, kategoriak eta eginkizunak bere lanpostuen plantilla organikoan eta lanpostu-zerrendan zehaztuko direla.

Erakunde autonomo honek ez du langilerik eta bere jardueraren ondorioz bete beharreko eginkizunak Udaleko langileek betetzen dituzte.

Ez da ageri erakunde autonomo honen barruan kontrol-eginkizunik betetzen denik.

VII.2. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Erakunde autonomo honen diru-sarrerak 61.701 eurokoak izan ziren, aurreikusita zeudenen ehuneko 98, alegia. Diru-sarrerera nagusiak igerile-

kuko kuotenak –guztiaren ehuneko 62, hain zuzen–, Etxauriko Udalaren 12.000 euroko ekarpena –guztiaren ehuneko 19– eta lokal bat 8.965 euroren ordainez mailegatzea dira –azken hau diru-sarrerera guztien ehuneko 15, hain zuzen–.

2010eko diru-sarrerak 2009koak baino ehuneko 21 txikiagoak izan ziren, igerilekuetara abonatuakoen kuotak ehuneko 35 urritu zirelako batez ere. Alderantziz, Udalaren ekarpena ehuneko 200 handitu zen, eta 4.000 eurokoa izatetik 12.000 eurokoa izatera igo zen.

Erakunde Autonomoaren Biltzar Nagusiari dagokio, erakunde horren Zuzendaritza Batzordeak proposaturik, igerilekuak erabiltzeko prezio publikoak onartzea. Prezio horiek Udaltzak onartu zituen, ordea.

Sarrerak zuzen likidatuta, kobratuta eta kontabilizatuta daude, oro har, 2010eko abenduko 815 euroko alokairua salbu, ez baita ekitaldi honetan erregistratu.

VII.3. AURREKONTUETAKO GASTUAK

Erakunde autonomoaren gastuak 72.090 euro izan ziren 2010ean, hasierako aurrekontu-kredituen ehuneko 115, alegia. Ehuneko 91 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokie, eta ehuneko 7,5 maileguaren amortizazioari.

2010eko gastuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 6 handiagoak izan ziren.

Denak Bat erakunde autonomoak ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko egindako gastuak 65.779 eurokoak izan ziren 2010ean, aurreikusitako kreditua baino % 115 handiagoak. Bereziki aipatzekoak dira igerilekuko udako jarduerak –24.007 euro–, lorategien eta futbol-zelaiaren mantentze-lanak –13.040 euro– eta ur-hornidura eta saneamendua –10.934 euro–.

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko egindako gastuen ehuneko 66 hartzen duen lagin bat aztertu da. Lagin horren fiskalizazioa eginik, ondorioz ateratzen da gastu horiek onartuta eta fakturen bidez edo bestelako ziurtagiriz justifikaturik, ordaindurik eta zuzen kontabilizaturik daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

Ez da ageri igerilekuko soroslea eta igerilekuaren mantenimendua kontratatzea –23.287 euroko gastua izan zen gai honetan 2010ean–, lizitazio-prozeduraren arabera egin zenik.

9.152 euroko gastuak egin ziren, nahiz eta atxikitze juridikoaren poltsan horietarako krediturik ez izan.

VII.4. EGOERA-BALANTZEA

Erakunde autonomo honen egoera-balantzean 20.082 euroko aktiboak eta pasiboak ageri dira.

Egoera-orri horren fiskalizazioak ondorio hauek eman ditu:

- Ez da jasota ageri ibilgetu materialeko 16.971 euroko saldoa bermatzen duen inbentariarik.
- Balantzeko pasiboan ez daude sartuta 2010eko abenduaren 31rako amortizatzeko dagoen mailegu bati dagozkion 7.846 euroak. 2010ean ordaindu zen 5.373 euroko amortizazioa ondare garbiaren kontutik kendu zen.

VII.5. GOMENDIOAK

Denak Bat erakunde autonomoaren fiskalizazi-otik ateratako ondorioak ikusita, gomendio hauek ematen ditugu bai Udalarentzat bat erakunde autonomoarentzat:

- Udalak bere zerbitzu-eskaintza antolatzeko duen aginpidearen barruan, kirol-zerbitzuak era-

kunde autonomo baten bidez eskaintzeak Udalak berak kudeatzearen aldean dituen alde onak eta txarrak aztertzea.

- Erakunde autonomoaren finantza-egoera eta egoera hori onbideratzeko neurri ekonomikoak bideratzeko aukera aztertzea.

- Erakunde autonomoaren jardura ekonomiko-ari dagokionez barne kontrola egiteko eginkizuna betetzea.

- Gastuetarako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzeko moduko kontrolak ezartzea.

- Ondasun guztien inbentario balioztatu eta eguneratu bat onestea.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, M^a Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Lehendakariak: Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZ-TUTAKO ALEGAZIOAK

1.UDAL HONI BURUZKO ONDORIOEI ETA AHOLKUEI EGINDAKO ALEGAZIOAK.

1.- 2010eko Aurrekontua eta Kontua.

Gastu horiek kontabilizatzean izandako atzerapenak eraginda, betebeharra aitortu baino lehen egin zen ordainketa. Une honetan Udal honetako langileak ez daude prestatuta lan horiek ardura hartzeko. Kontabilitatearen ardura Geserlocal enpresari kontratatu zaio. Pertsona bat etortzen da Etxauri, Ziriza, Etxarri eta Bidaurretako Udalen kontabilitate-dokumentuak kontabilizatzeraz, eta astean behin baizik ez da etortzen. Gutxiegi dela uste dugu; horregatik bada, astean egun gehiagotan etortzeko proposatuko zaio enpresari, edo bestela Etxauriko Udalari dagozkion lanetarako pertsona bat xedatzeko eta Ziriza, Etxarri eta Bidaurretako Udalei dagozkien lanetarako beste bat xedatzeko proposatuko zaio, 2009. urtea arte egiten zen bezala.

Nolanahi ere, oraindik aspaldi ez dela Udaleko funtzionario izendatu zen Administrazioako Ofizialak kontabilitatearen ardura bere gain hartzeko behar diren ikastaroak egiteko aukera ere aztertzen ari da. Hala proposatu dio Udalbatzari Idazkari Kontu-Hartzaileak, ordainketak, kontabilitatean aztertu eta aitortu ondoren, bizkor egiteko irtenbiderik egokiena dela iritzirik.

Amortizatze dagoen mailegua ez da agertzen zor gisa egoera-balantzearen pasiboan.

Animsak instalatutako kontabilitate-programak ez du zuzenean jasotzen gaur egun. Animsari kontsulta egingo zaio kontabilitate-programaren aplikazioan zuzenketa hori sar dezan eta hemendik aurrera egoera-balantzean automatikoki kontabilizatzen dadin.

2.- Langileak.

Langileen ordainsariak ez ziren urritu 1eko ekainetik aurrera, defizita murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen ekainaren 12/2010eko 2010 Foru Legearen arabera.

Idazkaria bajaran egon zen 2010eko apiriletik iraila arte eta aldi horretan beste aholkulari bat kontratatu zen, lan-ordu gutxiagorekin; lan-ordu gutxiagorekin, beharbada, presarik gehieneko gaiak aurrera eramateko. 2010eko ekainean Udalak erabakia hartu zuen udaleko langileei soldata murrizten zitzaie unetik bertatik, 2010ean zehar beste horrenbesteko gehikuntza bat egingo zitzaie, soldataren osagarri gisa.

2011ko maiatzean, Udalbatza aldatu zelarik, Idazkariak Udalari jakinarazi zion 12/2010 Legea nahitaez aplikatzeko zela eta halaxe hartu zuen hark. Neurritz gainera ordaindutako kopuruak deskontatzeko aginduak eman ziren; horren ondorioz, 2011ko uztailaren 1etik aurrera 12/2010 Legea aplikatuz ordaindu ziren soldadak, eta 2011ko lehenengo sei hilabeteetan oker kobratutakoa 2011ko abenduko soldata-gehigarritik deskontatu zen (nominak prestatzen dituen enpresak gizarte-aseguruekin izango ziren arazoengatik ekaineko soldata-gehigarritik ezin zela deskontatu jakinarazi zuen). Horregatik, bada, 2011ko urtarrilaren 1etik gaur egun arte, 12/2010 Legea aplikatuz ordaintzen dira langileen soldadak.

2010eko ekainaren 1etik 2010eko abenduaren 31 arte egindako ordainketei dagokienez, langileei jakinarazi zitzaie Udalak hartutako erabakia ez zela legezkoa eta neurritz gainera kobratutakoa itzuli beharra zegoela, horrenbestez. Oraindik ez da zuzendu, hala ere, barneko zenbait arazorengatik (Administrazio-laguntzailea eta Administrazio Ofiziala amatasun-bajan daude eta ez dute jasotzen soldatarik Udaletik). Bi langile horiek lanera itzuli bezain laster, bidegabekobratutako aldeak atxikiko zaizkie.

Idazkariaren ordezkari bat jartzea ez da lan erraza, ez baitago eginkizun horiek betetzeko prestatuta dagoen langile-poltsarik. Toki Administrazioako Departamentuak, lehiaketa bidez, eginkizun hauek prestatutako langilez osatutako lan-poltsa bat edukitzea izango litzateke irtenbiderik egokiena. Bitarteko irtenbide gisa une horretan Alkatearen bulegoarentzako aholkularitza lanetan ari zen pertsona bat kontratatzea erabaki zen, horixe jo baitzen irtenbiderik egokientzat.

3.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.

Zenbait zerbitzuren fakturak, hala nola argiarena, telefonoarenak, urarenak kontabilizatzeko erabiltzen den irizpidea, fakturak jaulkitzen diren datoren arabera kontabilizatzea da; horrela bada ez luke alde esanguratsurik izan behar erabiltzen den irizpidearen arabera. 2010ean 34.029 eurotarainoko fakturak kontabilizatu ziren. Zenbatekoaren arabera, argiarena da handiena, eta 2009ko ekainetik abendurainokoa hartzen du; hori hala izateko arrazoia elektrizitate-enpresen araudiak izandako aldaketak eta zerbitzu horren kontratazioa aske utzi izana dira. Hori baino lehen Electra Valdizarbe enpresak igortzen zituen argiaren fakturak. Araudi berriarekin, zerbitzu hori kontratatu zitzaion enpresa berria CEC Energía izan zen, eta aldaketa hori egin bitartean, 2009. urteko azken sei hilabeteetan ez zen ezer fakturatu; aldi horri dagokion fakturazioa 2010ean igorri zen. Egoera hori normalizatuta

dago dagoeneko, eta arazorik izatekotan, hurrengo urteko urtarrileko fakturan izango litzateke, abenduko kontsumoak adieraziko bailituzke.

4.- Inbertsioak.

Betetzeko epea igarotzeari dagokionez, ez dago ezer esatekorik.

Epeak betearaztea konpontzeko dagoen arazo bat da; oso zaila da epeak betearaztea, Udalak ez duelako behar diren izapide guztiak egiteko behar den baliabiderik.

Aurrekontua esleitutako kopurutik ehuneko 23 handitzea proiektua indarrean dagoen araudia betetzeko aldatu beharrak ekarri du (ur beroaren hoditeriaren atzerabideari dagokionez).

Kontratu-aldaketako espedientea izapidetu beharko zatekeen eta, hori baino lehen, aldaketa horren aurrekontua aurkeztu. Obraren zuzendaritzak biderik errazenera jo zuen: araudia betetzeko egin behar ziren obrak egin eta aldaketa horiek obraren ziurtagirian sartu.

5.- Transferentzia arruntetarako gastuak.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren banaketa tramitatzea Orkoiengo Udalari dagokio. Banaketa hori inoiz ez da jasotzen ekitaldi barruan, hurrengo ekitaldian baizik. Hona azkeneko banaketak: 2007. eta 2008. urteetako banaketak 2009an jakinarazten dira; 2009ko banaketa 2010ean jakinarazten da eta 2010eko eta 2011ko banaketak 2012ko martxoan jakinarazten dira. Partida horiek ezin dira kontabilizatu sortzapenaren printzipioari jarraituz, kontuak ixten direnean partida horiei dagozkien zenbatekoak ezagutzen ez direlako.

6.- Zergak.

Hirilurren kontribuzioa, behar zen bezala, ehuneko 0,37ko zerga-tasaz ordainarazi ordez, 0,38ko zerga-tasa batez ordainarazteko akatsa akats informatiko baten ondorioa izan da. Sail berean, landalurren kontribuzioa ehuneko 0,80ko zerga-tasa batez ordainarazi zen eta ez zen arazorik izan. Erantzuna oso erraza da: Etxaurin bi seihilabetekotan ordainarazten dira hirilurren kontribuzioa eta landalurren kontribuzioa. Aplikazioa ez zegoen prestatuta ordaintzeko kuotaren ehuneko 50 kalkulatzeko, normala izango litzatekeen bezala; horren ordez, zerga-tasari aplikatzen zion ehuneko 50a. Landalurren kontribuzioan seihilabetekoari zegokiona kalkulatzeko, ehuneko 0,80ari aplikatu zitzaion ehuneko 50a; horrek ehuneko 0,40 ematen zuen, eta ehuneko hori aplikatu zitzaion katastroko balioen ehuneko ehunari; hirilurren kontribuzioari dagokionez, berriz, ehuneko 0,37ari ehuneko 50 aplikatu zitzaion, eta ehuneko 0,19 eman zuen,

eta ez programa informatikoak kalkulatu beharko zukeen ehuneko 0,185, eta ehuneko 0,19 hori aplikatu zitzaion katastroko balioen ehuneko ehunari. Animsari kontsultatu zitzaion eta arazoa konpondu egin zen.

2002ko abenduaz gero Udalak ez du egunera-tu bere balorazio-ponentzia.

Etxauriko Udalak, 2006ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Etxauriko Udalaren Plan Orokorra erredaktatzeko lehiaketaren esleipena erabaki zuen. Lau urte ozta-ozta igaroak ziren azkeneko berrikusketaz gero eta Udalaren Plan Orokorra onartzeak balorazio-ponentzia berriro berrikustea eskatzen duenez, Plan Orokorraren behin betiko onartu arte itxarotea hobetsi zen. Une honetan esan dezakegu Plan Orokorrari 2011ko urtarrilaren 19an eman zitzaioela hasierako onarpena, baina Udaltza berriak Plan Orokorra aldatzeko enkargua eman du, eta une honetan erredaktatzaile taldeak proiektua noiz aurkeztuko zain gaude, hasierako onarpena emateko. Une honetan, Plan Orokorra onartu zain gaude, balorazio-ponentziaren berrikusketa egiteko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legeak aldatuak, 139. artikuluan dio ezen luraren kontribuzioaren kuota oinarri zergagarriari udal barruti osorako grabamen-tasa berbera aplikatuz ateratzen dela, eta grabamen-tasa hori ehuneko 0,10 eta ehuneko 0,50 bitartekoa izan daitekeela.

Nolanahi ere, lege horren xedapen iragankor bakarrak dio ezen, balorazio-ponentziaren berrikusketa egin bitartean, Udalak ezar ditzakeela luraren kontribuzioari dagokionean ehuneko 0,10 eta 0,50 bitarteko tasak hirilurretarako eta ehuneko 0,10 eta 0,80 bitarteko tasak landalurretarako.

Etxaurik, balorazio-ponentzia araudi berriaren arabera oraindik berrikusi gabe daukanez, ehuneko 0,10 eta 0,50 bitarteko grabamen-tasak aplikatzen ditu hirilurren kontribuziorako eta ehuneko 0,10 eta 0,80 bitartekoak landalurren kontribuziorako, abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankor bakarraren arabera.

7.- Jasotako transferentzia arruntak.

Zirizako eta Etxarriko Udalek, baltzuan dituzten langileengatik, egin behar dituzten 28.001 euroko ekarpenak ez ziren kontabilizatu 2010ean; hutsegite soila izan zen. Zirizako eta Etxarriko Udalek bai daukate kontabilizatuta 2010eko ekitaldian Etxauriko Udalaren alde egindako gastu hori. Partida

horiek beti kontabilizatu izan dira dagokien urtean, eta halaxe kontabilizatzen dira orain ere.

8.- Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak.

Baso-enkanteari dagozkion diru-sarrerak ez dira kontabilizatu sortzapenaren printzipioaren arabera. Fakturazioaren data kontuan hartuz kontabilizatu dira. 2010ean faktura bat igorri zen eta 2011n beste bat, Nafarroako Gobernuari BEZA fakturak egiaz kobratutakoan likidatzeko.

9.- Zordunak

144.261,00 euro ekitaldi itxiei dagozkiela egiaztatu da (2009 eta aurreko urteak). Datuak aztertutik, ordaindu gabe baleude bezala ageri diren hirigintza-kuota batzuk daudela ikusten da, nahiz eta kuota horiek ordainduta edo huts eginda baina kontabilizatu gabe egon.

Horrela bada, kuota horiek guztiak ordainduta daude; kontabilitatean, hala ere, itxitako ekitaldietan agertzen ziren, 2005ekoak baitira, eta kontabilitatea Muninfor, S.L. enpresatik Animsa enpresara aldatu zenean, informazio hori ez zen behar bezain zuzen hustu, eta harrezkero akats hori agertzen da.

10.- Hirigintza.

Udalak Etxauriko Udalaren Plan Orokorra onartzeko prozedura hasi duela ohartarazten da. Une honetan, Plana erredaktatzen ari den taldea proiektua aurkeztera doa, hasierako onarpena eman dakion (Udalbatza berriak 2011ko urtarrilean hasierako onarpena eman zitzaion Plana aldatzea erabaki du).

Inbentariarik ez da ageri.

Gaur egun erabiltzen den aplikazioa erabiliz eta gaur egun dagoen informazioarekin ezin egin daiteke ondasunak eta haien balioa egiaz zein diren islatuko duen ondasunen inbentario eguneraturik.

Ez dago Udalaren lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunen erregistririk.

Ez dago helburu horretarako aplikatu daitekeen Udalaren lurzorurik.

Nafarroako Comptos Ganberak emandako aholkuei dagokienez, Udalak oso-osorik bere egiten dituela jakinarazten da, eta denak aztertuko direla eta ahal den bezainbatean aintzat hartuko, aholku horiek betetzeko eskura dauden udal-langileak eta Udalaren baliabideak kontuan hartuta.

2. DENAK BAT ERAKUNDE AUTONOMOARI BURUZKO ONDORIOEI ETA AOHOLKUEI EGINDAKO ALEGAZIOAK.

1.- Alderdi orokorrak.

2010ean Denak Bat Erakunde Autonomoak ez zuen bere langilerik. Gaur egun ere ez du bere langilerik, baina Udaleko langileek administrazio-lanetan parte hartzen dute.

2.- Aurrekontuko diru-sarrerak.

Diru-sarreraren galera abonatuaren bajak abonatuaren altak baino askoz gehiago izan direlako gertatu da batez ere.

3.- Aurrekontuetako gastuak. Ez dago zer alegaturik gai honi buruz.

4.- Egoera-balantzea.

Inbentariarik ez da ageri.

Gaur egun erabiltzen den aplikazioa erabiliz eta gaur egun dagoen informazioarekin ezin egin daiteke ondasunak eta haien balioa egiaz zein diren islatuko duen ondasunen inbentario eguneraturik. Amortizatzeko dagoen mailegua ez da agertzen zor gisa egoera-balantzearen pasiboan. Animsak instalatutako kontabilitate-programak ez du zuzenean jasotzen gaur egun. Animsari kontsulta egingo zaio kontabilitate-programaren aplikazioan zuzenketa hori sar dezan eta hemendik aurrera egoera-balantzean automatikoki kontabiliza dadin.

Nafarroako Comptos Ganberak emandako aholkuei dagokienez, Denak Bat Erakunde Autonomoak oso-osorik bere egiten dituela jakinarazten da, eta denak aztertuko direla eta ahal den bezainbatean aintzat hartuko, aholku horiek betetzeko langilerik ez dagoela eta lortu diren baliabideak kontuan hartuta.

Etxauri, 2012ko martxoaren 30ean

Alkatea: Santiago Huarte Astiz

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Etxauriko Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertuta, uste dugu ez dituztela aldatzen txostenaren ondorioak eta, horrenbestez, txostenean erantsi ditugu eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Alegazioetan zehazten diren zordunen zerrenda kendu dugu, Ganbera honen iritzian informazio hori fiskalizazio-txosten batean agertzekoa ez delako.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Lehendakariak: Helio Robleda Cabezas

Lekunberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Lekunberriko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lekunberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (25. or.).

II. Lekunberriko Udala (25. or.).

II.1. Datu orokorrak (25. or.).

II.2. Araubide juridikoa (26. or.).

III. Helburua eta hedadura (27. or.).

IV. Iritzia (28. or.).

IV.1. Udala (28. or.).

IV.2. Aralar Musika Eskola (30. or.).

V. Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (31. or.).

V.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren aurrekontuaren gauzatze-egoera. 2010eko ekitaldia (31. or.).

V.2. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2010eko aurrekontu-emaiza (32. or.).

V.3. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren diruzaintzako gerakinaren egoeraria 2010eko abenduaren 31n (33. or.).

V.4. 2010eko abenduaren 31ko egoera-balantzea (35. or.).

V.5. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren emaitza ekonomikoa 2010eko abenduaren 31n (37. or.).

VI. Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (38. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (38. or.).

VI.2. Langile-gastuak (38. or.).

VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (39. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (40. or.).

VI.5. Inbertsioak (40. or.).

VI.6. Finantza-karga (41. or.).

VI.7. Zerga-sarrerak (41. or.).

VI.8. Bestelako sarrerak (42. or.).

VI.9. Hirigintza (43. or.).

VI.10. Gorabeherak eta ziurgabetasunak (43. or.).

VII. Aralar Musika Eskolaren inguruko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (44. or.).

Lekunberriko Alkateak eta Toki Administrazioako Zuzendari Nagusiak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (46. or.).

Comptos Ganberaren erantzuna behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei (51. or.).

I. SARRERA

Comptos ganberak, urteko azken hiruhilekoan, Lekunberriko Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2010eko kontu orokorraren ikuskapena bere jardun-programan sartu zuen.

Landa-lana 2011ko abendutik 2012ko otsailera bitartean egin da.

Txostena zazpi epigrafetan egituratzen da, sarrera hau barne dela. Bigarrenean, Udalaren ezaugarri nagusiak eta araubide juridikoa adierazten dira. Hirugarren epigrafean, txostenaren helburuak eta hedadura ematen ditugu aditzera eta, laugarrenean, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren kontu orokorrari buruzko iritzia azaltzen dugu. Bosgarrenean, kontu horren laburpen bat jasotzen dugu. Eta seigarrenean eta zazpigarrenean, hurrenez hurren, Udalaren eta haren

erakunde autonomoen antolamendua eta barne-kontrola hobetzeko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak azaltzen ditugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntza eskertzen diegu.

II. LEKUNBERRIKO UDALA**II.1. DATU OROKORRAK**

Lekunberriko udalerrriak 6,6 km²-ko hedadura du, Iruñeko merindadean dago, Nafarroako hiriburutik 33 kilometrora, eta 1.473 biztanle ditu 2010eko abenduaren 31n.

Bere jarduera garatzeko, Aralar Musika Eskola izeneko erakunde autonomoa baliatu du. 2010eko abenduaren 31n, zifra ekonomiko esanguratsuenak honako hauek dira:

| Erakundea | Aitortutako obligazioak | Aitortutako eskubideak | Langileak 2010-12-31n |
|------------------------------------|-------------------------|------------------------|-----------------------|
| Udala | 4.075.717 | 4.490.766 | 16 |
| Musika-eskola | 496.418 | 488.438 | 21 |
| Likidazioa guztira (bateratu gabe) | 4.572.135 | 4.979.204 | |

Udalak ez du sozietate publikorik eratu, eta honako mankomunitate hauetan partaide da:

- Kirol Mankomunitatea, kirola sustatzeko. Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberri osatzen dute.
- Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea. 3 zonatan banatutako 14 udalek osatzen dute. Lekunberriko Udala Larraunaldean dago, Larraun, Betelu eta Araitzen ondoan.
- Mendialdea Mankomunitatea, hiri-hondakin solidoak kudeatzeko, Leitza, Larraun, Areso, Arano eta Goizuetarekin batera.

- Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Arruazu, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Iza eta Uharte Arakilek osatzen dute.

- Plazaola Partzuergoa, turismoa sustatzeko. Udalen eta kontzejuen artean, 43 toki-erakundek osatzen dute.

Laburbilduz, egiten dituen zerbitzu publiko nagusiak eta horiek egiteko modua, 2010ean, ondoko taulan adierazten dira:

| Udal-zerbitzuak | Udala | Erakunde autonomoa | Mankomunitatea | Ematea | Zerbitzuen kontratua |
|----------------------------------|-------|--------------------|----------------|--------|----------------------|
| Administrazio-zerbitzu orokorrak | X | | | | |
| Musika-eskola | | X | | | |
| Eguneko zentroa | | | | X | |
| Etkez etxeko laguntza | | | X | | |
| Hirigintza | X | | | | |
| Ur-homidura | X | | | | |
| Hiri-hondakinak | | | X | | |
| Bide-garbiketa | | | | | X |
| 0-3 haur-zentroa | | | | X | |
| Kultura-zentroa | X | | | | |
| Oinarizko gizarte-zerbitzua | | | X | | |
| Udal-kiroldegia | | | | X | |
| Igerilekuak | | | | X | |
| Kirol-jardueren kudeaketa | | | X | | |
| Liburutegia | X | | | | |
| Udal futbol-zelaia | X | | | | |

II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

2010eko ekitaldian Lekunberriko Udalarari aplikatutako araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako toki-administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki-ogasunei buruzkoa.
- 270, 271 eta 273/1998 Foru Dekretuak, irailaren 21ekoak, Nafarroako Toki Administrazioarako gastu publikoaren aurrekontuari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.
- 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki-araubidearen eguneratzekoa.
- 7/1985 Legea, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutuari buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean toki-erakundeentzat ezarritako berezitasunekin.
- 35/2002 Foru Legea, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.
- 1/1995 Errege Dekretua, langileen estatutuei buruzkoa.
- 12/2010 Foru Legea, ekainaren 11koa, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- 15/2010 Legea, uztailaren 5koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriari buruzkoa.
- 13/2009 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 26koa, toki-enplegurako eta -iraunkortasunerako estatu-funtsa eratzen duena.
- 2010eko aurrekontua gauzatzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

III. HELBURUA ETA HEDADURA

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lekunberriko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren gaineko ikuskapena egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Lekunberriko Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan adierazten duen 2010eko abenduaren 31ko ondarearen, gastuen eta sarreraren aurrekontuko likidazioaren eta finantza-egoeraren irudi zehatza, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, finantza-informazio publikoari buruzko aplikatzekoa den esparru arauemailearekin eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorri.

b) Udalak eta haren erakunde autonomoak garatutako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zein neurritaraino bete den 2010. urtean.

c) Udalaren finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n eta 2007tik 2010era bitartean izan duen bilakaera.

Txostenarekin batera, bidezkotzat jotzen diren gomendioak jasotzen dira, Udalean eta haren erakunde autonomoan ezarritako barneko, administrazioiko, kontabilitateko eta kudeaketako kontrol-sistema hobetzeko eta/edo osatzeko asmoz.

Txostenaren hedadurak Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorra hartzen du. Horrek erakun-

dearen beraren kontu orokorra eta haren erakunde autonomoarena biltzen ditu. Udalak ez du egoera-orri bateraturik eta haren kontuak, besteak beste, finantza-egoeraren orri hauek barne hartzen ditu:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren aurrekontuaren gauzatze-egoera.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoaren egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak; besteak beste, kontu-hartzaitzaren txostena.

Lan hau egiteko, Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren ikuskapen-printzipioei eta -arauei jarraitu diegu (Comptos ganberak bere ikuskatze-eskuliburuan garatu ditu). Gainera, kontuan hartu ditugun hautaketa-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu ditugu, lanaren baldintzak eta helburuak kontuan izanda. Prozedura horien barruan, aurrekontu-sailen edo eragiketa zehatzen laginketaren edo hautaketa bidezko azterketaren teknikak erabili ditugu.

Zehazki, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren aurrekontuko eta finantzako egoera-orrien edukia eta koherentzia, eta aplikatutako oinarrizko prozedurak aztertu ditugu, bai eta antolamendua-rekin, kontabilitatearekin eta barne-kontrolarekin lotutako oinarrizko alderdiak ere.

2007tik 2010era bitarteko aldiari dagokion haien finantza-egoeraren bilakaera aztertzeke, ganbera honek mota honetako lanetan erabili ohi dituen magnitudeak, ratioak eta adierazleak aplikatu ditugu.

IV. IRITZIA

Egindako azterketaren ondorioz, iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALA**IV.1.1. Kontu orokorra**

- Udalaren ondasunen inbentario 1992koa da eta ez da formalki eguneratu, 2010eko ekitaldian balio batzuk aztertu badira ere. Ondorioz, ezin izan dugu Udalaren ibilgetuko kontabilitate-saldorekin arrazoizkotasuna ziurtatu. Haren saldoa 16,25 milioi euro da 2010eko abenduaren 31n.

- 2009an, sarreraren 6. kapituluaren, 798.363,79 euroko eskubideak aitortu ziren lursail baten salmentaren ondorioz. 2010ean, eskubide horien zati bat modu okerrean deuseztatu zen, 457.068 euroko zenbatekoaz, eta ondorioak izan ditu 6. kapituluko aitortutako eskubideen eta kobrantzen gainean (457.068 euro gehitu dira), eta aurrekontuaren emaitzan ere. Era berean, sarreraren emaitza ekonomikoaren, balantzearen eta aurrekontu itxiak frogatzen dituen egoera-orriaren gainean ondorioak izan dira.

- Uitziko tunelaren eraikuntzarekin lotutako finantzaketa-desbideratzeak oker kalkulatu ziren. Gertakari horrek ondorioak ditu doitutako aurrekontu-emaitzan eta diruzaintzako gerakinean.

- Aurrekontu arrunteko ordaintzen dauden obligazioak, akats informatiko baten ondorioz, ez datoz bat balantzean jasotzen direnekin.

- Udalaren 2009ko emaitza ekonomikoa (2010koarekiko konparazioan agertzen da) Aralar Musika Eskolari buruzko datuak erabilia lortu zen, aplikazio informatikoaren akats batengatik.

Gure iritzian, aurreko salbuespenen ondorioak duen garrantzia kontuan izanda, Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion kontu orokorrak ez du jasotzen 2010eko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren, aurrekontu-likidazioaren eta emaitza ekonomikoaren irudi zehatza, aplikatzekoak diren konta-

biliteari eta aurrekontuei buruzko printzipio eta arauen arabera.

IV.1.2. Legezketasuna

Udalaren ekonomia- eta finantza-jarduera, oro har, legezketasun-printzipioaren arabera garatzen da, aurrekontuen eta kontabilitatearen arloko lehen adierazitako salbuespenen ondorioengatik salbu.

IV.1.3. Ekonomia- eta finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n

Lekunberriko Udalaren hasierako aurreikuspenak 5,94 milioi eurokoak dira. Aurreikuspen horiek, aurrekontu-aldaketan bidez, 323.764 euroko gehikuntza (ehuneko bosteko gehikuntza) izan dute inbertsio-gastuetarako eta horiei dagokien finantzaketarako.

Aitortutako obligazioak 4,08 milioi euro dira, ehuneko 65eko gauzatze-mailaz eta ehuneko 83ko ordainketaz. Sarreraren kasuan, finantza-egoe-raren orriak aurreko salbuespenekin doitu ondoren, aitortutako eskubideak 4,95 milioi euro dira, ehuneko 79ko betetze-mailaz eta ehuneko 69ko kobrantzaz.

Zorpetze-maila ehuneko 34koa da. Ehuneko horrek nabarmen gairatzen du zorpetzearen muga ekonomikoa, ehuneko hamarrekota baita.

Udalaren zor bizia, Plazaola Partzuergoaren 2010eko abenduko mailegua barne dela (Udalak solidarioki abalatu da, 222.000 euroekin), 2010eko abenduaren 31n 3,2 milioi eurokoa da; hau da, haren sarrera arruntan ehuneko 165. Ehuneko hori beste zorpetze bat hartzeko egun baimentzen den ehuneko 75eko legezko mugaren oso gainetik dago.

Udalaren 2010eko doitutako aurrekontu-emaitza, deskribatutako salbuespenei dagozkien doitutak egin ondoren, eta bateratu gabeko diruzaintzako guztizko gerakina hobetu egin dira 2009arekiko. Aipatu beharra dago, diruzaintzako guztizko gerakina hobetu bada ere, gastu orokorretarako erabilgarri dauden funtsak 2009koen antzekoak direla, jarraian erakusten denez:

| Magnitudea | 2010 | 2009 |
|---|---------|----------|
| Doitutako aurrekontu-emaitza | 756.023 | -272.296 |
| Diruzaintzako gerakina guztira | 414.476 | 263.860 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 176.891 | 173.079 |
| Sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 237.585 | 90.781 |

Ondorengo taulan, Udalaren likidaziotik lortutako 2007-2010 aldiko ekitaldietako adierazle nagusi-en bilakaera erakusten da, deskribatutako salbuespenen ondoriozko doikuntzak egin ondoren:

| Adierazlea | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | Aldakuntza % 2010-2007 |
|--|-----------|-----------|-----------|-----------|---------------------------|
| Sarrerak guztira | 4.662.077 | 6.000.985 | 5.088.457 | 4.947.834 | 6,13 |
| Gastuak guztira | 4.599.658 | 5.901.859 | 6.580.250 | 4.075.717 | -11,39 |
| Sarrera arruntak | 2.068.794 | 2.165.403 | 1.962.446 | 1.938.168 | -6,31 |
| Gastu arruntak | 1.858.290 | 2.048.408 | 2.070.844 | 1.824.118 | -1,84 |
| Zerga-sarrerak | 1.322.962 | 1.394.837 | 1.087.728 | 1.110.085 | -16,09 |
| Funtzionamendu-gastuak | 1.788.169 | 1.978.842 | 1.931.181 | 1.753.395 | -1,94 |
| Inbertsio garbia | 1.780.341 | 3.787.485 | 2.576.154 | 812.740 | -54,35 |
| Transferentzia arruntekiko mendekotasuna % | 34,97 | 34,86 | 44,14 | 42,30 | 20,96 |
| Aurrezki gordina | 280.624 | 186.561 | 31.265 | 184.773 | -34,16 |
| Finantza-karga | 125.121 | 124.566 | 212.728 | 668.349 | 434,16 |
| Aurrezki garbia | 155.503 | 61.995 | -181.463 | -483.576 | -410,98 |
| Hitzartutako maileguak | - | 1.570.000 | 600.000 | 103.455 | - |
| Zor bizia | 1.434.999 | 2.949.999 | 3.476.935 | 3.204.763 | 123,33 |
| Zor bizia / sarrera arruntak % | 69 | 136 | 177 | 165 | 123,19 |
| Zorpetze-maila % | 6,05 | 5,75 | 10,84 | 34,48 | 469,92 |
| Zorpetze-ahalmena % | 7,52 | 2,86 | -9,25 | -24,95 | -431,78 |
| Zorpetze-muga % | 13,56 | 8,62 | 1,59 | 9,53 | -29,72 |

Aurreko datuetatik, alderdi hauek nabarmen-tzen dira:

- Guztizko sarrerak ehuneko sei igo dira eta guztizko gastuak ehuneko 11 jaitsi dira aztertutako aldian. Izaera kontuan izanda, sarrera arruntak ehuneko sei murriztu dira, eta gastu arruntak, berriz, ehuneko bi.
- Zerga-sarrerak ehuneko 16 murriztu dira, eta funtzionamendu-gastuak, berriz, ehuneko bi.
- Inbertsio garbia ehuneko 54 jaitsi da aztertutako aldian. Hala, 1,78 milioi eurotik 0,81era pasatu dira.
- Zor biziak ehuneko 123 gora egin du, 3,2 milioi eurora iritsi arte. Hala, aztertutako azken hiru urteetan, ehuneko 75eko maila gainditu du sarrera arruntan gainean. Gaur egun, horrek mugatu egi-ten du zorpetzea hartzea.
- Zorpetze-maila nabarmen igo da aztertutako aldian. Hala, ehuneko 34koa izatera pasatu da.

Zorpetze-ahalmena negatiboa izan da 2009an, eta, 2010ean, haren balioak beheranzko joera horri eutsi dio.

Hortaz, aurreko iruzkinak agerian uzten dute, Udala, inbertsioetan murrizketak egin arren eta funtzionamendu-gastuei eta gastu arruntei eutsi arren, une zaila igarotzen ari dela zorpetzearekin lotutako adierazle guztiek erakusten duten bilakae-raren ondorioz. Egungo krisialdi orokortuak eta Nafarroako udalerrien artean banatu beharreko transferentzien bolumenari dagokionez ikusten diren ziurgabetasunek egoera are eta gehiago larriagotu dezakete.

Beraz, ganbera honen ustez, beharrezkoa da Udalak bere bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko plan bat lehenbailehen diseinatu eta aplikatzea; besteak beste, helburu hauek lortzera zuzendutako neurriak aplikatu ahal izateko: gastu arruntari eustea, baliabide arruntak sortzeko ahalmena areagotzea eta behar-beharrezkoak diren inbertsioak egitea.

IV.2. ARALAR MUSIKA ESKOLA

IV.2.1. Kontu orokorra

Aplikazio informatikoaren akats baten ondorioz, aurrekontua gauzatzeko egoera-orrian, sarreren 4. kapituluan, kobratzeke agertzen diren jadanik kobratutako 48.022 euro.

Aurreko salbuespenaren ondorioengatik ez bada, Aralar Musika Eskolaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan jasotzen du gastuei eta sarrerei dagokien aurrekontu-likidazioaren, abenduaren 31ko ondare-egoeraren eta gauzatutako eragiketen emaitzen irudi zehatza. Era berean, berori behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar adinako informazioa biltzen du, finantza-informazio publikoari buruzko aplikatzekoa den esparru arauemailearekin eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideekin bat etorritz.

IV.2.2. Legezketasuna

Egindako lanaren hedaduraren arabera, oro har, Aralar Musika Eskolaren ekonomia- eta finantza-jarduera legezketasun-printzipioari jarraituz garatu da.

IV.2.3. Ekonomia- eta finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n

Aralar Musika Eskolak 522.000 euroko hasierako eta behin betiko aurreikuspenak ditu. Aitortutako obligazioak 496.418 euro dira, ehuneko 95eko gauzatze-mailaz eta ehuneko 99ko ordainketaz. Sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 488.438 euro dira, ehuneko 94ko betetze-mailaz eta ehuneko 90eko kobrantzaz.

2010eko eta 2009ko abenduaren 31ko haren ekonomia- eta finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk (aurreko epigrafean adierazitako salbuespenen ondoriozko doikuntzak sartu ondoren) honako hauek dira:

| Adierazlea | 2010 | 2009 |
|---|---------|---------|
| Sarrera arruntak | 488.438 | 466.579 |
| Funtzionamendu-gastuak | 496.418 | 488.647 |
| Aurrezki gordina, aurrezki garbia eta doitutako aurrekontu-emaitza* | -7.980 | -22.068 |
| Diruzaintzako gerakina | 12.778 | 21.547 |

* Finantza-kargarik nahiz beste mota bateko gastu edo sarrerarik ez dagoenez, hiru adierazleen balioak bat datoz.

Sarrera arruntak ehuneko bost igo dira eta, funtsean, honako hauei dagozkie: ikasleei kobratutako tasak (ehuneko 46), eta zerbitzu hau erabiltzen duten herritarren bederatzi udalengandik jasotako diru-laguntzak (ehuneko 33), eta Nafarroako Gobernuarengandik jasotakoak (ehuneko 18).

Funtzionamendu-gastuek ehuneko bi gora egin dute 2009arekiko. Ehuneko 86an langile-gastuei

dagozkie, eta gainerako ehuneko 14an ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuei.

Aurrekontu-emaitza bi urteetan negatiboa bada ere, 2010ean 14.088 euro hobetu da 2009ko ekitaldiarekiko. Diruzaintzako guztizko gerakina bat dator gastu orokorreki dagokienarekin, eta oraindik ere balio positiboak ditu 2010ean, ehuneko 40 jaitsi bada ere.

V. UDALAREN 2010EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENEA

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2010eko kontu orokorrak biltzen dituen finantza-egoeraren orrien laburpena jasotzen da,

aurreko paragrafoan deskribatutako salbuespenen ondoriozko doikuntzak egin ondoren.

Lekunberriko Udalak ez duenez kontu orokor bateratua egiten, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren kontabilitate-orri indibidualak erantsi dira.

V.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUAREN GAUZATZE-EGOERA. 2010EKO EKITALDIA**V.1.1. Udala (1)****Sarrerak kapituluka**

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa, gehitu (gutxitu) | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako eskubideak | Gauzatze % | Kobrantzak | Kobrantsen % | Kobrantszako dagoena |
|-------------------------------------|-------------------------|----------------------------|----------------------------|------------------------|--------------|---------------------|--------------|----------------------|
| 1. Zuzeneko zergak | 559.200,00 | 0,00 | 559.200,00 | 622.222,03 | 111,27 | 523.509,19 | 84,14 | 98.712,84 |
| 2. Zeharkako zergak | 125.000,00 | 0,00 | 125.000,00 | 53.926,92 | 43,14 | 37.486,24 | 69,51 | 16.440,68 |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | 554.080,00 | 0,00 | 554.080,00 | 433.936,12 | 78,32 | 404.618,81 | 93,24 | 29.317,31 |
| 4. Transferentzia arruntak | 773.556,00 | 12.000,00 | 785.556,00 | 819.797,02 | 104,36 | 692.390,53 | 84,46 | 127.406,49 |
| 5. Ondare-sarrerak | 8.700,00 | 0,00 | 8.700,00 | 8.285,70 | 95,24 | 1.546,37 | 18,66 | 6.739,33 |
| 6. Inbertsio errealeen besterentzea | 1.400.000,00 | 0,00 | 1.400.000,00 | 908.691,52 | 64,91 | 81.631,30 | 8,98 | 827.060,22 |
| 7. Kapital-transferentziak | 2.203.193,00 | 311.763,54 | 2.514.956,54 | 1.997.519,73 | 79,43 | 1.585.742,33 | 79,39 | 411.777,40 |
| 9. Finantza-pasiboan aldakuntza | 320.000,00 | 0,00 | 320.000,00 | 103.455,00 | 32,33 | 103.455,00 | 100,00 | 0,00 |
| Guztira | 5.943.729,00 | 323.763,54 | 6.267.492,54 | 4.947.834,04 | 78,94 | 3.430.379,77 | 69,33 | 1.517.454,27 |

Gastuak kapituluka

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa, gehitu (gutxitu) | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako obligazioak | Gauzatze % | Ordainketak | Ordainketen % | Ordaintzeko dagoena |
|--|-------------------------|----------------------------|----------------------------|-------------------------|--------------|---------------------|---------------|---------------------|
| 1. Langile-gastuak | 516.700,00 | 0,00 | 516.700,00 | 491.661,42 | 95,15 | 476.822,42 | 96,98 | 14.839,00 |
| 2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak | 701.850,00 | -7.000,00 | 694.850,00 | 654.771,81 | 94,23 | 464.449,92 | 70,93 | 190.321,89 |
| 3. Finantza-gastuak | 85.000,00 | 9.000,00 | 94.000,00 | 70.722,96 | 75,24 | 70.722,96 | 100,00 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 605.636,00 | 10.000,00 | 615.636,00 | 606.961,59 | 98,59 | 545.723,43 | 89,91 | 61.238,16 |
| 6. Inbertsio errealak | 2.258.043,00 | 311.763,54 | 2.569.806,54 | 1.653.972,97 | 64,36 | 1.242.625,67 | 75,13 | 411.347,30 |
| 7. Kapital-transferentziak | 1.000,00 | 0,00 | 1.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 1.775.500,00 | 0,00 | 1.775.500,00 | 597.626,28 | 33,66 | 597.626,28 | 100,00 | 0,00 |
| Guztira | 5.943.729,00 | 323.763,54 | 6.267.492,54 | 4.075.717,03 | 65,03 | 3.397.970,68 | 83,37 | 677.746,35 |

(1) Honako doikuntza hauek egin dira: 457.068 euro gehitu dira aitortutako eskubideetan eta kobrantzetan, 6. kapituluan.

V.1.2. Musika-eskola (2)**Sarrerak kapituluka**

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa, gehitu (gutxitu) | | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako eskubideak | Gauzatze | | Kobrantsen | |
|---------------------------------|----------------------------|----------------------------------|--|-------------------------------|---------------------------|--------------|-------------------|---------------|-----------------------|
| | | | | | | % | Kobrantsak | % | Kobrantsen dagoena |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | 237.000,00 | 0,00 | | 237.000,00 | 232.820,73 | 98,24 | 232.820,73 | 100,00 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 285.000,00 | 0,00 | | 285.000,00 | 255.617,09 | 89,69 | 255.617,09 | 100,00 | 0,00 |
| Guztira | 522.000,00 | 0,00 | | 522.000,00 | 488.437,82 | 93,57 | 488.437,82 | 100,00 | 0,00 |

Gastuak kapituluka

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketa, gehitu (gutxitu) | | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako obligazioak | Gauzatze | | Ordainketen | |
|--|----------------------------|----------------------------------|--|-------------------------------|----------------------------|--------------|-------------------|--------------|------------------------|
| | | | | | | % | Ordainketak | % | Ordaintzeko dagoena |
| 1. Langile-gastuak | 447.500,00 | 0,00 | | 447.500,00 | 427.428,42 | 95,51 | 426.746,53 | 99,84 | 681,89 |
| 2. Ondasun arunten eta zerbitzuen gastuak | 74.500,00 | 0,00 | | 74.500,00 | 68.989,31 | 92,60 | 68.393,63 | 99,14 | 595,68 |
| Guztira | 522.000,00 | 0,00 | | 522.000,00 | 496.417,73 | 95,10 | 495.140,16 | 99,74 | 1.277,57 |

**V.2. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE
AUTONOMOAREN 2010eko AURREKONTU-
EMAITZA****V.2.1. Udala (3)**

| Kontzeptua | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|--|------------------|----------------------|
| Aitortutako eskubide garbiak | 5.088.457 | 4.947.834 |
| Aitortutako obligazio garbiak | 5.852.999 | 4.075.717 |
| Aurrekontu-emaizta | -764.542 | 872.117 |
| Doikuntzak | | |
| Finantzaketako desbideratze positiboa | -281.150 | -200.836 |
| Finantzaketako desbideratze negatiboa | 773.396 | 84.741 |
| Diruzaintzako gerakinaz finantzaketako gastuak | 0 | 0 |
| Doitutako aurrekontu-emaizta | -272.296 | 756.022 |

(2) Kobrantsak 48.022 euro gehitu dira transferentzia arrunten 4. kapituluan.

(3) Honako doikuntza hauek egin dira: aitortutako eskubideei 457.068 euro gehitu zaizkie, finantzaketa-desbideratze positiboa 134.452 euro murriztu da eta negatiboa 191.792 murriztu da.

V.2.2. Musika-eskola

| Kontzeptua | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|--|------------------|-------------------|
| Aitortutako eskubide garbiak | 466.579 | 488.438 |
| Aitortutako obligazio garbiak | 488.647 | 496.418 |
| Aurrekontu-emaiza | -22.068 | -7.980 |
| Doikuntzak | | |
| Finantzaketako desbideratze positiboa | 0 | 0 |
| Finantzaketako desbideratze negatiboa | 0 | 0 |
| Diruzaintzako gerakinaz finantzatutako gastuak | 0 | 0 |
| Doitutako aurrekontu-emaiza | -22.068 | -7.980 |

V.3. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2010eko ABENDUAREN 31n**V.3.1. Udala (4)**

| Kontzeptua | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|---|------------------|-------------------|
| (+) Kobratzeko dauden eskubideak | 2.253.426 | 2.228.205 |
| (+) Sarrerren aurrekontua: aribideko ekitaldia | 1.770.403 | 1.517.454 |
| (+) Sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 564.710 | 708.774 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko sarrerak | 374.937 | 536.153 |
| (-) Biltzen zailak diren eskubideak | 456.624 | 534.176 |
| (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako sarrerak | 0 | 0 |
| (-) Ordaintzeko dauden obligazioak | 2.176.176 | 1.855.292 |
| (+) Gastuen aurrekontua: aribideko ekitaldia | 1.551.504 | 677.746 |
| (+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 175.847 | 474.251 |
| (+) Sarrerren aurrekontua | 0 | 0 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko gastuak | 448.825 | 703.295 |
| (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak | 0 | 0 |
| (+) Diruzaintzako funts likidoak | 186.610 | 41.563 |
| (+) Finantzaketako desbideratze negatibo metatuak | 0 | 0 |
| = Diruzaintzako gerakina guztira | 263.860 | 414.476 |
| Sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 90.781 | 237.585 |
| Lotutako baliabideen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 0 | 0 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 173.079 | 176.891 |

(4) Sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina 147.456 euro gehitu da.

V.3.2. Musika-eskola

| Kontzeptua | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|---|------------------|-------------------|
| (+) Kobratzeko dauden eskubideak | 1.192 | 403 |
| (+) Sarrerren aurrekontua: aribideko ekitaldia | 806 | 0 |
| (+) Sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 2.552 | 3.358 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko sarrerak | 0 | 0 |
| (-) Biltzen zailak diren eskubideak | 2.166 | 2.955 |
| (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako sarrerak | 0 | 0 |
| (-) Ordaintzeko dauden obligazioak | 17.290 | 10.746 |
| (+) Gastuen aurrekontua: aribideko ekitaldia | 8.326 | 1.277 |
| (+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 0 | 0 |
| (+) Sarrerren aurrekontua | 0 | 0 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko gastuak | 8.964 | 9.469 |
| (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak | 0 | 0 |
| (+) Diruzaintzako funts likidoak | 37.645 | 23.121 |
| (+) Finantzaketako desbideratze negatibo metatuak | 0 | 0 |
| = Diruzaintzako gerakina guztira | 21.547 | 12.778 |
| Sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 0 | 0 |
| Lotutako baliabideen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 0 | 0 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina | 21.547 | 12.778 |

V.4. 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

V.4.1. Udala ⁽⁵⁾

AKTIBOA

| Deskribapena | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|--------------------------|------------------|-------------------|
| A Ibilgetua | 0 | 16.248.631 |
| 1 Ibilgetu materiala | 0 | 15.602.993 |
| 2 Ibilgetu ez-materiala | 0 | 645.638 |
| C Zirkulatuzailea | 2.896.660 | 2.803.945 |
| 8 Zordunak | 2.710.050 | 2.762.382 |
| 9 Finantza-kontuak | 186.610 | 41.563 |
| Aktiboa guztira | 2.896.660 | 19.052.576 |

PASIBOA

| Deskribapena | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|---|-------------------|-------------------|
| A Funts propioak | -2.756.450 | 14.214.521 |
| 1 Ondarea eta erreserbak | -2.457.839 | 14.723.914 |
| 2 Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa (mozkina) | -298.611 | -509.393 |
| C Epe luzerako hartzekodunak | 3.476.934 | 2.982.763 |
| 4 Jasotako jesapenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 3.476.934 | 2.982.763 |
| D Epe laburrerako hartzekodunak | 2.176.176 | 1.855.292 |
| 5 Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak | 624.672 | 1.177.546 |
| 6 Aurrekontuaren hartzekodunak | 1.551.504 | 677.746 |
| Pasiboa guztira | 2.896.660 | 19.052.576 |

(5) 2010eko ekitaldiko emaitza ekonomikoa 457.069 euro murriztu da eta aurrekontuaren hartzekodunak 23.386 euro gehitu dira.

V.4.2. Musika-eskola**AKTIBOA**

| Deskribapena | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|------------------------|------------------|-------------------|
| C Zirkulatzaila | 41.003 | 26.479 |
| 8 Zordunak | 3.358 | 3.358 |
| 9 Finantza-kontuak | 37.645 | 23.121 |
| Aktiboa guztira | 41.003 | 26.479 |

PASIBOA

| Deskribapena | 2009ko ekitaldia | 2010eko ekitaldia |
|---|------------------|-------------------|
| A Funts propioak | 23.712 | 15.733 |
| 1 Ondarea eta erreserbak | 45.782 | 23.713 |
| 2 Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa (mozkina) | -22.070 | -7.980 |
| D Epe laburrerako hartzekodunak | 17.291 | 10.746 |
| 5 Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak | 8.965 | 9.469 |
| 6 Aurrekontuaren hartzekodunak | 8.326 | 1.277 |
| Pasiboa guztira | 41.003 | 26.479 |

V.5. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN EMAITZA EKONOMIKOA 2010eko ABENDUAREN 31n

V.5.1. Udala (6)

| Deskribapena | 2010 | 2009 | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|-----------------|-----------------|---|----------|----------|
| 61 Langile-gastuak | 491.661 | 480.628 | 70 Salmenta | 433.936 | 489.588 |
| 62 Finantza-gastuak | 70.723 | 139.663 | 71 Jabetzaren eta enpresaren errenta | 8.286 | 8.418 |
| 64 Kanpoko lanak, homidurak eta zerbitzuak | 654.772 | 836.213 | 72 Produkz. eta inportazioarekin lotutako zergak | 510.684 | 485.919 |
| 67 Transferentzia arruntak | 606.962 | 614.339 | 73 Errent. eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 100.146 | 95.503 |
| 68 Kapital-transferentziak | 0 | 199.406 | 76 Transferentzia arruntak | 819.797 | 866.300 |
| 69 Kalkulatutako gastuak | 0 | 0 | 77 Kapitalaren gaineko zergak | 65.319 | 16.717 |
| | | | 78 Bestelako samerak | 0 | 0 |
| D80 Ekitald. emaitza arrunta (saldo hartzekod.) | 0 | -307.804 | H80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna) | 114.050 | 0 |
| D84 Aurrek. itxietako bajak eta deuseztatzeak | 632.758 | 1.532 | H84 Aurrekontu itxietako altak eta preskripzioak | 9.315 | 10.724 |
| D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa | -509.393 | -298.612 | H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa | 0 | 0 |

V.5.2. Musika-eskola

| Deskribapena | 2010 | 2009 | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---------------|----------------|---|----------|---------|
| 61 Langile-gastuak | 427.428 | 424.832 | 70 Salmentak | 232.821 | 217.900 |
| 62 Finantza-gastuak | 0 | 0 | 71 Jabetzaren eta enpresaren errenta | 0 | |
| 64 Kanpoko lanak, homidurak eta zerbitzuak | 68.989 | 63.816 | 72 Produkz. eta inportazioarekin lotutako zergak | 0 | |
| | | | Errentaren eta ondarearen gaineko zerga | | |
| 67 Transferentzia arruntak | 0 | 0 | 73 arruntak | 0 | |
| 68 Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 76 Transferentzia arruntak | 255.617 | 248.678 |
| 69 Kalkulatutako gastuak | 0 | 0 | 77 Kapitalaren gaineko zergak | 0 | |
| | | | 78 Bestelako samerak | 0 | |
| D80 Ekitald. emaitza arrunta (saldo hartzekod.) | -7.980 | -22.070 | H80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna) | 0 | |
| D80 Aurrek. itxietako bajak eta deuseztatzeak | 0 | | H84 Aurrekontu itxietako altak eta preskripzioak | 0 | |
| D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa | -7.980 | -22.070 | H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa | 0 | |

(6) 2009rako emaitza berriro kalkulatu da, eta itxietako aurrekontuen ondoriozko bajak eta deuseztatzeak 457.068 euro gehitu dira.

VI. UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, ganbera honen aburuz Udalak bere egin behar dituen ondorio eta gomendio nagusiak, haren antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Behin betiko aurrekontua 2010eko maiatzean onartu zen, eta 2011ko otsailean haren aldaketa bat argitaratu ere.

Lotespen-poltsetan, batzuetan ez da errespetatzen gastuetarako kredituen izaera mugatzailea.

Udalaren kontu orokorrak ez ditu biltzen Aralar Musika Eskola erakunde autonomoarekiko egoera-orri bateratuak. Ildo horretatik, adierazi beharra dago 2011ko azaroko udalbatza batean, Mendialdea Mankomunitateak musika-eskolak eskaintzen duen zerbitzua bere gain hartzeko eta Udalaren erakunde autonomo izateari uzteko asmoa azaldu zela. Ziur aski, 2012ko hasiera aldean gertatuko da hori.

Inbentarioa 1992koa da eta ez da erabat eguneratu, 2010ean ondasun batzuen balioak eguneratu baziren ere. Gainera, ibilgetuaren balioa balantzeari gehitu zitzaien, ordura arte ez baitzegoen bertan jasota.

Udalaren kontabilitateak, eragiketa jakin batzuk eta kontu orokorraren itxiera kontabilizatzeko, Toki Administrazioiko Departamentuaren aholkularitza du.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Aurrekontu-aldaketen irudia erabiltzea gastuetarako kredituak mugatzeko printzipioa bete dadin ziurtatzeko.*

- *Udaleko ondasunen eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta onartzea, eta, ondoren, ondasun guztiak eskrituratuta eta erregistratuta daudela egiaztatzea.*

- *Egoera-balantzearen ibilgetuko aurrekontu-sailen kontabilitate-saldoak aztertzea eta, hala badagokio, erregularizatzea, erakundearen ondasunaren osaera behar bezala jasotzeko asmoz.*

- *Inbentarioko dokumentazioa kontrolatu eta artxibatzea, eta haren alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe eguneratu eta kontabilitatean ibilgetuarekin berdinkatu dadin ziurtatu eta errazteko.*

- *Beharrezko neurriak hartzea aurrekontua onartu eta argitaratzeko ezarritako legezko epeak bete daitezen.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileei buruzko kapituluan aitortutako obligazioak 491.661 eurokoak dira; hau da, 2010ean aitortutako gastu guztien ehuneko 12. Ehuneko 95ean gauzatu dira eta, 2009ko ekitaldiarekiko, ehuneko bi gehitu dira.

Hona horien banakapena eta 2009arekiko konparazioa:

| Kontzeptua | 2009ko gastua | 2010eko gastua | Aldakuntza % 2010/2009 |
|---|------------------|-------------------|---------------------------|
| Goi-karguak | 33.635 | 32.780 | -2,6 |
| Langile funtzionarioak | 56.213 | 54.461 | -3,2 |
| Lan-kontratuko langileak | 236.683 | 245.945 | 4,0 |
| Bestelako langileak | 9.360 | 9.360 | 0,0 |
| Enplegatzailearen konturako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak | 144.738 | 149.115 | 3,0 |
| Gutzizkoak | 480.629 | 491.661 | 2,3 |

Langile-gastuak, langileen ordainsariak murrizteko 12/2010 Legean jasotako neurriak gorabehera, ehuneko 2,3 igo dira, aldi baterako langile gehiago kontratatu izanagatik, Nafarroako Gobernuaren laguntzak areagotzearen ondorioz.

2010erako Udalaren plantilla organikoan zazpi lanpostu jasotzen dira, eta horietatik hiru hutsik daude. Plantillan ez dira jasotzen kontratatutako langileak. 2010eko abenduaren 31n, Udalean 14 lagunek egiten zuten lan, honako taula honetan jasotzen denez:

| Langile mota | Lanpostuak |
|--------------------------------|------------|
| Funtzionarioak | 3 |
| Administrazio-kontrataduna | 1 |
| Lan-kontratuko finkoa | 1 |
| Lan-kontratuko aldi baterakoak | 9 |

Lan-kontratuko aldi baterako langileen artean, noizbehinka kontratatutako langileak daude, gizarte-zerbitzuek proposatuta, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntza-programen eta babespeko gizarte-enplegurako laguntzen babesean.

Lehen adierazi bezala, 12/2010 Foru Legean jasotako ordainsari-murrizketa aplikatu zaie langileei. Neurri horiek aplikatzearen ondoriozko baliabideak (6.658 euro, Udalaren arabera) zorra aurretiaz amortizatzeraz zuzendu dira.

Langile-gastuen gainean egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, egoki betetzen dela indarrean dagoen araudia eta gastu horiek behar bezala kontabilizatzen direla.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Udaleko plantilla indarrean dagoen araudian ezarritako epeetan onartzea eta erakundeokoa diren langile guztiak sartzeara.*

- *Plantilla finkatzeko asmoz, hutsik dauden lanpostuak behin betiko eskaini eta deitzea komenigarria den aztertzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak 654.772 eurora murriztu dira 2010eko ekitaldian, eta ehuneko 94 gauzatu da. Kapitulu hau gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 16 da, eta ehuneko 22 jaitsi da 2009arekiko; zenbait aurrekontu-saillek (zaindariaren jaiak, kaleen eta udaletxearen kontserbazioa, etab.) izan dituzten murrizketen ondorioz.

Honako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira (zenbatekoak eurotan azaltzen dira, BEZa kanpo dela):

| Espedientea | Mota | Prozedura | Eskaintza kopurua | Lizitazioaren zenbatekoa | Esleipenaren zenbatekoa |
|-----------------------------------|----------|---------------------------------|-------------------|--------------------------|-------------------------|
| Udal-eskolak garbitzeko zerbitzua | Laguntza | Irekia. Eskaintza onuragarriena | 5 | 75.541 | 70.202 |
| Kaleak garbitzeko zerbitzua | Laguntza | Irekia. Eskaintza onuragarriena | 3 | 330 (asteko) | 330 (asteko) |

Aurrekoari erantsita, kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu ondoren, ondoriozta daiteke gastu horiek kontratuei buruzko legeriaren arabera bideratu direla eta behar bezala onartuta, kontuhartuta eta kontabilizatuta daudela, honako salbuespen hauekin: kontratua sinatu ondoren fidantza aurkeztea, eta 2008ko eta 2009.ko fakturak 2010ean kontabilizatzea, 1.500 euroko zenbatekoaz.

Aztertutako gastu arrunten artean, eguneko zentroa mantentzekoak daude (9.298 euro). Zentroaren eraikuntza 2009an amaitu zen eta 1,17 milioi euroko kostua izan zuen (BEZa barne). Inbertsio hori finantzatzeko, Udalak Gizarte Ongizate Departamentuaren 775.730 euroko dirulaguntza lortu zuen; 34 laguni egindako galdera sortan oinarritutako erabilera-aurreikuspenari buruzko txostena aurkeztu ondoren. Zentroaren kudeaketa Eulen Servicios Sociosanitarios, SA enpresari esleitura dago 2009 ezkerero. Hala ere, jarduera ez zen 2010era arte hasi, erabiltzaile batekin, eta egun hiru daude.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Ekipamenduetan inbertsio gehiagori ekin erabakitzeke garaian, bideragarritasun-plan errealista bat egitea, haien benetako beharra eta litezkeen erabilerak aztertzeke.*
- *Ekitaldi bakoitzeko fakturak kontabilizatzeke garaian, sortzapen-printzipioa aplikatzea.*

- *Kontratua sinatu aurretik, esleipendunei fidantza eskatzea, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenez.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentziak 606.962 euro dira 2010ean, eta ehuneko 99an gauzatu dira. Guztiak transferentzia arruntak dira. Aitortutako obligazio guztien ehuneko 15 dira eta eutsi egin zaie 2009arekiko.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, gastu horiek egoki bideratu eta kontabilizatu direla, honako salbuespen honekin:

“Hautzaindegiaren kudeaketa” aurrekontu-saillean, zerbitzugintza horri dagozkion 196.102 euro kontabilizatu dira.

Honako hau gomendatzen dugu:

Hirugarrenei esleitutako zerbitzuak kudeatzeko gastuak ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuei buruzko bigarren kapituluan kontabilizatzea.

VI.5. INBERTSIOAK

Ekitaldian egindako inbertsioak 1,6 milioi euro dira guztira, eta ehuneko 64an gauzatu dira behin betiko aurrekontuaren gainean. Kapitulu hau ekitaldian aitortutako obligazio guztien ehuneko 40 da, eta ehuneko 27 murriztu da 2009arekiko.

Honako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira (zenbatekoak eurotan azaltzen dira, BEZa kanpo dela):

| Espeditentea | Mota | Prozedura | Eskaintza kopurua | Lizitazioaren zenbatekoa | Esleipenaren zenbatekoa |
|--|----------|---|-------------------|--------------------------|-------------------------|
| Edateko uren araztegiaren proiektua idaztea | Laguntza | Negoziatua, publikitate komunitariorik gabe. Eskaintza onuragarriena | 3 | 55.000 | 23.500 |
| Aralarko Atea proiektua | Laguntza | Negoziatua, publikitate komunitariorik gabe. Eskaintza onuragarriena | 1 | 50.000 | 49.000 |
| Biomasa eraikina egitea | Obra | Negoziatua, publikitate komunitariorik gabe. Preziorik baxuena | 2 | 54.776 | 51.268 |
| Drainatze-isuriak eta euri-uretakoak murriztea. Ur beltzen sarea | Obra | Irekia. Eskaintza onuragarriena | 18 | 535.958 | 338.726 |

Prozedura negoziatuari jarraituz egindako esleipenen aurretik, Aralarko Atea proiekturako hiru enpresa gonbidatu ziren, eta Biomasa eraikina egiteko, berriz, bost enpresa. Aurreko taulan zehaztutako enpresa kopuruak aurkeztu zituen eskaintzak.

Egindako lanetik ondorioztatzen da, oro har, espedienteak aplikatzekoa den kontratuei buruzko legeriaren arabera bideratu direla. Hala ere, honako gai hauek aipatu behar dira: kontratua formalizatu ondoren fidantzak aurkeztea eta gauzatzeko epean atzerapenak egotea.

Honako hau gomendatzen dugu:

Kontratuei buruzko legerian eta administrazio-klausulen orrietan ezarritako baldintza formal guztiak betetzea, hala nola: kontratua formalizatu aurretik fidantza eskatzea edo gauzatzeko epea justifikatu gabe ez betetzeagatik zigorrak ezartzea.

VI.6. FINANTZA-KARGA

Gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluaren batura 668.349 euro izan da 2010ean, hau da, gastu guztien ehuneko 16. 2009arekiko, gastu horiek ehuneko 214 gehitu dira, 500.000 euroko mailegu bat amortizatzearen ondorioz.

Udalak diruzaintzako eragiketa hauek hitzartu ditu 2010ean:

- Urriaren 27an, urtebetetik beherako epemugako mailegu bat eskatu zuen, 600.000 euroko balioaz.

- 2010eko abenduaren 28an, Plazaola Turismo Partzuergoak 222.000 euroko mailegua hitzartu zuen, Udala egiten ari den Uitziko tunelaren obrak finantzatzeko. Mailegu horretan, Lekunberriko Udala ageri da, abal-emaile solidario gisa, beste bi udalekin batera.

- 2010eko abenduaren 30ean, Udalak 103.455 euroko mailegu bat hitzartu zuen.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horiek egoki bideratu eta kontabilizatu direla, formalizatutako abalari dagokionez izan ezik. Izan ere, abal horretarako ez zen Administrazioaren baimena eskatu, 2009an aurrezki garbi negatiboa izan arren.

Honako hau gomendatzen dugu:

Foru Komunitateko Administrazioaren baimena eskatzea, dagokion saneamendu-plana aurkeztuta, kreditu-eragiketa bat hitzartu nahi den guztietan, aurreko ekitaldiko aurrezki garbia negatiboa bada.

VI.7. ZERGA-SARRERAK

Zerga-sarreraren ondorioz 2010ean aitortutako eskubideak 1,11 milioi euro dira, eta ehuneko biko gehikuntza izan da aurreko ekitaldiarekiko. Kapituluak, honela banakatzen dira:

| Kontzeptua | 2010 | 2009 | (eurotan) |
|-------------------------------|------------------|------------------|---------------------------|
| | | | Aldakuntza % 2010-2009 |
| Zuzeneko zergak | 622.222 | 548.509 | 13 |
| Zeharkako zergak | 53.927 | 49.631 | 8 |
| Tasak eta bestelako sarrerak | 433.936 | 489.588 | -11 |
| Zerga-sarrerak guztira | 1.110.085 | 1.087.728 | 2 |

Aldakuntzen justifikazioak, funtsean, honako hauek dira:

- Zuzeneko zergen artean, hiri-kontribuzioaren eta gainbalioen ondoriozko sarrerak gehitzea.

- Zabor-bilketaren tasak jaitea, zerbitzua Mankomunitateari eskualdatzeagatik.

Udalak aplikatutako tasak toki-ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotako sortaren goiko tartean kokatzen dira, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

| Kontzeptua | 2/1995 FL | Udala 2010 |
|------------------------------|-----------|------------|
| Lurralde-kontribuzioa: | | |
| Hiritarra | 0,10-0,50 | 0,39 |
| Landatarra | | 0,8 |
| EjZ | 1-1,4 | 1,4 |
| Lurren balioaren gehikuntza: | | |
| Eguneratze-koefizientea | 2-3,8 | 3 - 3,3 |
| Karga mota | 8-20 | 20 |
| EIOZ | 2-5 | 4 |

Udala beste balioespen-txosten bat tramitatze-ko fasean dago eta, oraindik ere, kontribuzio hiritarrerako eta landatarrerako tasak bereizten ditu. Beraz, 2006tik indarrean dagoen toki-ogasunei buruzko 2/1995 Foru Arauaren 139. artikulua ezarritako tasa bakarrera ez da egokitu, eta egoera hori onartzen duen 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankorrari heltzen dio. Hori dela eta, kontribuzio landatarrari 2010ean aplikatzekoa zaion tasak (0,8) gainditu egiten du 2/1995 Legeak ezarritako gehienekoa (0,5).

Sarreraren aurrekontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketaren ondorioz, hura, oro har,

egoki bideratu eta kontabilizatzen direla egiaztatu ahal izan dugu.

Honako hau gomendatzen dugu:

Ondasunak balioesteko txosten berria lehenbailehen onartzea eta lurralde-kontribuzioaren tasak indarrean dagoen araudira egokitzea.

VI.8. BESTELAKO SARRERAK

Aipatutako sarrerak, oro har, eta horien bilakera ondorengo taulan jasotzen dira:

| Kontzeptua | 2010 (eurotan) | 2009 (eurotan) | Aldakuntza % 2010-2009 |
|----------------------------------|------------------|------------------|---------------------------|
| Transferentzia arruntak | 819.797 | 866.300 | -5 |
| Ondare-sarrerak | 8.286 | 8.418 | -2 |
| Inbertsio errealeen besterentzea | 908.692 | 933.530 | -3 |
| Kapital-transferentziak | 1.997.520 | 1.592.481 | 25 |
| Finantza-pasiboak | 103.455 | 600.000 | -83 |
| Guztira | 3.837.750 | 4.000.729 | -4 |

Zergazkoak ez diren sarrerak ehuneko lau murriztu dira, zor txikiagoa hartzeagatik funtsean.

Aurrekontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketaren ondorioz, hura, oro har, egoki bideratu eta kontabilizatzen direla egiaztatu ahal izan dugu.

VI.9. HIRIGINTZA

Lekunberriko Udal Plana 2010eko irailean argitaratu zen, indarreko araudira egokituta.

Plana idazteko kontratatutako langile teknikoak arduratu dira denbora honetan sortu diren hirigintza-gaiak kudeatzeaz. 2010ean, Udalak ofizioz sustatutako bi hirigintza-espeditente bideratu ziren: xehetasun-azterlan bat eta 2011n behin betiko onartutako lursail-zatiketako proiektu bat.

Lekunberriko Udalak ez dauka eratuta Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa, ez eta hirigintza-hitzarmenena ere (2010eko ekitaldian hitzarmenik formalizatu ez bada ere).

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Udalaren lurzoru-ondarea eratzea eta Udalaren gainerako ondasunetatik bereiz kudeatzea,*

sarrerak eta irteerak erregistratzea (lurretan eta eskudirutan), eta haiek legez jasotako xedeetarako aplikatzea.

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa formalizatzea.*

VI.10. GORABEHERAK ETA ZIURGABETASUNAK

Lekunberriko Udala Nafarroako Gobernuarekiko auzi batean murgilduta dago, 2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagokien BEZarekin aitortpenarekin lotuta. Ogasun Departamentuak aitortpen horiek aztertu ditu.

Hona aipatutako aitortpenei eta 2010ekoari buruzko datuak (zenbatekoak eurotan adierazten dira):

| Urtea | Udalaren aitortpena | Ogasunaren azterketa | | |
|-------|---------------------|----------------------|--------------------------|--|
| | | Aitortpena | Berandutze- interesak | Ogasunari itzuli beharrekoa guztira |
| 2008 | -413.991,03 | -260.191,25 | 8.406,32 | 162.206,10 |
| 2009 | -101.257,64 | 136.423,95 | 4.074,03 | 140.497,98 |
| 2010 | -272.865,22 | -145.128,52 | - | - |

Ikus daitekeenez, Udalaren 2008., 2009. eta 2010. urteetako aitortpenetan, Ogasunak kengarriztat hartzen ez dituen gastuak biltzen dira. Horiek Uitziko tunelari, Udalaren kirol-instalazioei eta eguneko zentroari dagozkie.

Aurrekoaren ondorioz, Udalak 2008ko BEZaren itzulketa kobratu zuen eta Nafarroako Gobernuak, hura aztertu ondoren, 162.206 euro itzultzeko eskatu dio.

2009ko BEZa aztertu ondoren, antzeko zerbaite gertatu da. Udalak, aurkeztutako aitortpena kontuan izanda, 101.258 euro kobratu beharko zituen (Ogasunak ez ditu ordaindu); eta, aldiz, Ogasunak kalkulatu du toki-erakundeak 140.498 euro ordaindu behar dizkiola.

Hortaz, Udalak 302.758 euroko zorra izango luke Ogasunarekin (2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagokiena). 2010eko urrian, zor hori luzatzeko espeditentea onartu zen. Horrek eskatzen zuen 2011ko apirilean 5.045,06 euroko balioko kuotak ordaintzen hastea. Zor hori ez dago erregistratuta Udalaren kontabilitatean. Izan ere, toki-erakundeak erreklamazio bat aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean. Egun, erreklamazio hori ebazteko dago.

2011ko apirilean, Udalak luzatze-espeditentea bete zuen eta Ogasunari kuotak ordaintzen hasi zen. Bost hilabetez ordaindu zituen.

2010eko aitortpena aztertu ondoren (berriz ere, kontzeptu jakin batzuk sartzeko irizpide desberdinak izan ziren), Udalak 145.129 euro jaso zituen Ogasunarengandik (272.865 euroren orde) eta zenbateko hori Ogasunari itzuli zitzaion. Horrek murriztu egiten du Udalak ordaintzeko duen zorra.

Txosten hau emateko datan, Ogasunarekiko zorra 136.217 eurokoa da (gehi interesak) eta oraindik ere ez dago kontabilitatean erregistratuta.

Udalaren kontabilitatean, ordea, 2010eko abenduaren 31n, kobratzeko dauden ekitaldi horretako aitortpenari dagozkion 269.321 euroko eskubideak jasotzen dira. Kontuan izanik txosten honen V.3 epigrafean egindako doikuntza (horretan, sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina 147.456 euro areagotzen da), gure ustez, zuhurtasun-printzipioari erreparatuz, bi zenbateko horien arteko aldea (121.865 euro) biltzeko zailak diren eta kobratzeko dauden eskubidetzat hartu beharko litzateke, Udalaren finantza-egoera eta Ogasunarekiko ordaintzeko dagoen zorra aintzat hartuta.

VII. ARALAR MUSIKA ESKOLAREN INGU- RUKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMEN- DIOAK

Musika-eskolak musika-prestakuntza eskaintzen die haren funtzionamendua batera finantzatzen duten zenbait udalei. Lehen adierazi bezala, 2011ko azaroko udalbatza batean, Mendialdea Mankomunitateak musika-eskolak eskaintzen duen zerbitzua bere gain hartzeko eta Udalaren erakunde autonomo izateari uzteko asmoa azaldu

zen. Ziur aski, 2012ko hasiera aldean gertatuko da hori.

Musika-eskolaren 2010eko aurrekontua Udalaren aurrekontuarekin batera onartu zen, eta 522.000 eurokoa da. Haren aitortutako obligazioak 496.418 euro dira guztira, ehuneko 95eko gauzatzear eta ehuneko 99,74ko ordainketaz. Aitortutako eskubideak 488.438 euro dira, ehuneko 94ko gauzatzear, eta bere osotasunean kobratu dira.

Eskolak gastuak, 100 euroko, honela bideratu eta finantzatu dira:

| Gastu mota | Zenbatekoa | Finantzaketa-iturria | Zenbatekoa |
|--------------------------|------------|----------------------|------------|
| Langileak | 86 | Tasak eta prezioak | 48 |
| Bestelako gastu arruntak | 14 | Transferentziak | 52 |
| Guztira | 100 | Guztira | 100 |

Musika-eskolak ez du onartu ez plantilla organikorik, ez eta lanpostuen zerrendarik ere. 2010ean, 21 lagunek egin dute lan honako eginkizun hauek betetzen:

- Zuzendari-irakasle bat, lanaldi osoan.
- Zuzendaritza-kargua duten hiru irakaslek, lanaldi osoan.
- Irakaslea bat, lanaldi osoan.
- 16 irakasle, zati bateko lanaldian.

Langile-gastuen gainean egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, egoki betetzen dela indarrean dagoen araudia eta gastu horiek behar bezala kontabilizatzen direla.

Eskolak jasotzen dituen sarrerak ikasleek ordaindutako tasa eta kuotetatik, eta Nafarroako Gobernuaren eta eskolak zerbitzu egiten dien udalen transferentzietatik datoz. Laburbilduz, eskola honela finantzatzen da:

| Erakundea | Ekarpena 2010 | Ehunekoa |
|---------------------|----------------|------------|
| Nafarroako Gobernua | 85.824 | 18 |
| Araizko Udala | 11.601 | 3 |
| Basaburuko Udala | 15.600 | 3 |
| Beteluko Udala | 9.323 | 2 |
| Goizuetako Udala | 11.680 | 2 |
| Larraungo Udala | 17.269 | 4 |
| Leitzako Udala | 48.022 | 10 |
| Lekunberriko Udala | 29.252 | 6 |
| Ultzamako Udala | 24.781 | 5 |
| Odietako Udala | 2.265 | 0 |
| Tasak | 225.925 | 46 |
| Bestelako sarrerak | 6.896 | 1 |
| Guztira | 488.438 | 100 |

Sarrereren aurrekontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketaren ondorioz, hura, oro har, egoki bideratu eta kontabilizatzen dela egiaztatu ahal izan dugu.

Honako hau gomendatzen dugu:

Musika-eskolako plantilla organikoa onartu eta argitaratzea.

Lan hau egiteko arduradun Karen Moreno Orduña kontu-ikuskariak proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudian jasotako izapideak bete ondoren.

Iruñea, 2012ko apirilaren 19an

Presidentea: Helio Robleda Cabezas

LEKUNBERRIKO ALKATEAK ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK

Lekunberriko alkate-udalburu José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, toki-araubideari buruzko legediak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, Departamentuaren aurrean agertuta, ondo-koa dio:

Comptos Ganberako lehendakariak 2012ko apirilaren 2an eman eta udal honi 2012ko apirilaren 3ko erregistro data duen agiriaren bidez jakinarazitako Ebazpenaren bidez, erakunde horrek 2010eko ekitaldiari dagokion behin-behineko fiskalizazio txostena onetsi zuela.

Horretarako ezarritako epearen barruan, ondo-ko alegazioak aurkezten dizkiola 2010eko ekitaldiari dagokion behin-behineko fiskalizazio-txostena-ri:

LEHENA. ALDERDI OROKORRAK.

Lehenik eta behin, igorritako fiskalizazio txostenean jasotako orientabide eta aholkuak eskertzen ditugu; izan ere, uste dugu, zalantzarik gabe, oso Baliagarriak eta erabilgarriak izanen zaizkigula hurrengo ekitaldietan Udalaren kudeaketa hobetzeko.

BIGARRENA. KONTU OROKORRARI BURUZ-KOA

Inbentarioari dagokionez, egia da Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa dela, eta, ondasunetako batzuen balioak berrikusi badira ere, egun inbentarioa eguneratzen ari da, bai osaketari bai balorazioari dagokienez, eta lehenbailehen onesteko konpromisoa dugu. Eguneratze horrek, agerikoa denez, Udalaren ahalmenaren irudi fide-agoa emanen du, azken urteotan nabarmen handitu baita Udalaren higiezinaren ondarea, bai lurzoruari bai gure jabetzako eraikin berriei dagokienez.

Udalaren ondasunen inbentarioa formalizatu eta, erregistro hori sortzen denean lurzorua- ren udal ondaretik bereizi arte –udalbatzak laster aztertuko ditu bi gai horiek, oneste aldera–, honekin batera aurkezten dugu Udalak une honetan dituen ondasun eta jabetasunen zerrenda.

Seigarren kapituluari aitortutako diru-sarrerei dagokienez –hiri lur-zati baten salmentatik eratorri- ak dira– eta, zehatzago esanda, salmenta horren zati baten deuseztapena kontabilizatzeko moduari dagokionez, esan behar da Nafarroako Gobernu-ko teknikariek gai horri buruz emandako jarraibide eta

orientabideak jarraitzea mugatu dela udal hau, auditoreek egiaztatu ahal izan duten moduan.

Edonola ere, gure ustez funtsezkoa da argi uztea, gaizki ulerturik egon ez dadin afera hori interpretatzerakoan, ezen kontuen espediente- an egikarrituko aukerarekin, eta beste batzuetan gomendatu izan zaigun zuhurtzia-irizpide horri jarraikiz, aitortzen den emaitza ekonomiko eta aurrekontuzkoa ez dela Comptos Ganberaren jarraibideak erabilia izanen litzakeena bezain mesedegarria. Hau da, Comptos Ganberaren kontabilitate-irizpideari jarraituz, 2010eko ekitaldiari dagokion aurrekontu-emaitza askoz mesedegarri-agoa da espediente horretan jasotakoa baino; horrenbestez, kontabilitate-emaitza ez da inolaz ere "leundu" nahi izan, kontrakoa baizik, aipatu den moduan.

Era berean, eztabaida ezina da zorpetze-maila nabarmen handitu dela azken urteotan, eta 2007an % 6,05ekoa izatetik 2010ean % 34,48koa izatera pasa da. Nolanahi ere, azpiegitura produk- tiboak eraiki izanari eta, batez ere, industrialde-aren urbanizazioaren hirugarren fasea garatzeari zor zaie zorpetze-mailaren handitze hori.

Azken urteotan eraldaketa nabarmena izan dugu gure herrian –2001ean 847 biztanle izatetik gaur egun 1.500 izatera igaro da–, eta hori guztia zenbait esku-hartzeren bitartez egin da; horietako batzuk, funtsezkoak: hezkuntza-, kirol-, kultura- eta gizarte-ekipamendu berriak, esate baterako. "Ez produktibo" deituriko inbertsio horien zenbate-koa hamazortzi milioi eurotik gorakoa da, eta hori- ei esker urte hauetan nabarmen hazi den herri bakarra gara eskualde honetan. Hala ere, esan behar da ekipamendu horiek finantzatzeko ez dugula zorpetzera jo beharrik izan, tangentialki ez bada.

Esku-hartze horiek, produktiboen arloan egini-koekin batera –industrialdea, Plazaola, etab– etor- kizunari baikortasunez begiratzeko bidea ematen digute.

Edonola ere, adierazi nahi dugu Udalak inber- tsio-lanak egin dituela azpiegitura produktiboetan, denbora-tarte horretan; zehazki, industrialdeko lur- zatien urbanizazioaren hirugarren fasea. 20.000,00 m² lur-zati pribatu dira, eta saltzen do- azen heinean, zorpetze-maila jaisteko ez ezik, diru- sarrera arrunt berriak lortzeko ere bidea emanen dute, eta horrela Udalaren ahalmen orokorra sen- dotuko da.

Industrialdea urbanizatzeko erabakia une har- tan zegoen eskaera ikusirik hartu zen.

Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoak, denontzat ezaguna baita, eta finantzaketa lortzeko eta erosketa burutu eta jarduera abian jartzeko zailtasunek, salmenten atzerapena eragin dute, horrek guretzat dakarren eragin ekonomikoarekin, baina lur-zatiak erosteko interesa bada oraindik ere.

Azkenik, eta atal horrekin lotuta, Udalaren zor biziak diru-sarrera arrunten ehuneko 165 egiten duela aipatzen da; baina kalkulu hori egiterakoan kontuan hartu zen Plazaola partzuergoak hitzartutako mailegu bat, 222.000 eurokoa, Lekunberriko Udala, Larraungoarekin eta Leitzakoarekin batera, eragiketaren abal-emaile gisa agertzen dena.

Agerikoa denez, ulertzen dugu Lekunberriko Udalak mailegu horren zenbateko osoa kontabilizatu eta bere zor biziaren zatitza jo behar badu, irizpide berberari jarraitu beharko lioketela beste bi udalek ere (Larraungoak eta Leitzakoak); eta, hala, gertatuko litzateke Plazaola partzuergoak hitzartutako 220.000 euroko mailegu batengatik, zeinetan udal bakoitza abal-emaile gisa agertzen baita, guztira 888.000 euroko zor orokor bat agertuko litzatekeela (hiru udalen baturak eta partzuergoak berak kontabilizatutakoa). Hori dela eta, uste dugu edonola ere zenbateko horren herena edo laurdena kontabilizatu beharko litzatekeela Lekunberriko Udalarari esleitutako zor bizi gisa.

Hala ere, eskertzen dugu funtzionamendu-gastuari eta gastu arruntari eusteko azken urte hauetan egiten ari garen ahaleginaren inguruan egiten duzuen aitortpena, horixe bera izanen baita hurrengo urteetan aplikatuko dugun estrategia, zor finantzarioa nabarmen murrizten ez den bitartean. Murrizketa horrek, funtsean, lurzoru industrialaren salmentatik etorri behar du.

Industriako lur-zatiak salduz lortzen diren diru-sarrerak hitzartuta dauden maileguak amortizatze-ko erabiltzea da gobernu-taldearen erabakia.

Industriako lurzoruaren salmentaren simulatze bat egingo bagenu, 2 milioi eurotik gora lortzeko aukera izango genuke, eta, era horretan, zorpetzearen portzentajea, diru-sarrera arruntekin alderatuz, % 61,85era jaitsiko litzateke, eta gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko mugaren azpitik jarriko litzateke, % 75en azpitik alegia.

Laburbilduz, bada, txostenean ongi islatzen den bezala, jakinaren gainean gaude udal hau ekonomikoki bideragarri izan dadin segurtatzeko plan bat albait lasterren egin beharra dagoela, eta dagoeneko garrantzi handiko urratsak egin dira zentzu horretan.

Esate baterako, Udalaren jabegoko industriako lurzoru hori saltzea eskatzen duen eta salduz gero sortuko liratekeen sarrera guztiak zor hori epea baino lehen kitatzeko erabiliko liratekeen aipatutako gai horrez gainera, beste neurri sail bat ere hartu dira azkeneko hiru urte hauetan, txostenean aitortzen den bezala; neurri horiek oso garbi erakusten dute hartu den joera: hona hemen neurri horietako batzuk:

2012ko aurrekonturako, zehazki, neurri hauek hartu dira:

I. kapituluari dagokionez

2012ko otsailean bukatu da herriaren ondarearen ikerketa- eta berreskuratze-lana egin duen pertsonaren kontratua. Egitate horrek urte horretan bertan 27.000,00 euro urritzeta eta 2013an beste 6.000,00 euro urritzeta esan nahi du. Langileei dagokionez, aipatutakoaz gainera beste zenbait neurri ere hartu dira, kapitulu honetan beste 14.000,00 euro aurreztea eragingo dutenak, eta Larraungo Udalarekin tratua daude zenbait zerbitzu bateratzeko, hala nola Idazkaritzarena; horrek ere kapitulu honetan diru gehiago aurreztea eragingo luke.

Ekitaldi honetarako planteatuta dago orobat lan-mundura sartzeko programaren barruan kontratatuta dauden pertsonak gutxitzea. Atal horretan 5.000,00 euro aurreztuko direla aurreikusten da.

II. kapituluari dagokionez

Atal honetan hauek dira aldaketa nabarmenak dituzten partidak:

Lorzaintzako gastua.

Inausketako kontainerrak, urte osoan jartzen zirenak, urtean sei hilabetez baizik ez dira jarriko...

Espero den aurrezpena: 2.000,00 euro.

Kaleen kontserbazioa

Kale-garbiketa kanpoko kontratazio baten bidez egiten zen 2011ko iraila arte. Zerbitzu hori Udaleko langileen bidez egingo da aurrerantzean. Espero den aurrezpena: 6.000,00 euro.

Argiteria publikoa.

Gai honen auditoria bat egiten ari gara; aurten bertan zenbait neurri abiaraztea aurreikusita dago, baina horien eragin ekonomikoa 2013an ikusiko da; oraingo 69.500,00 euroko gastuan % 15eko aurrezpena egitea espero da, gutxienez.

Energia-kontsumoa

Kirol- eta eskola-eremuan biomasa-planta abiarazten denean, igerilekuetan, kirol-instalazioetan, eskolan eta haurtzaindegian gas-kontsumoa gutxienez % 17 beheratuko dela gauza segurua da. 2012an alor honetan gutxienez 12.000,00 euro aurreratuko direla uste dugu.

IV. kapituluari dagokionez

Kirol-mankomunitaterako ekarpena % 20 urritu da, 6.000,00 euro.

Kulturako batzorderako ekarpena bi mila euroz urritu da.

Ultzamako Udalarekin berdintasun-programari dagokionez zegoen hitzarmena baztertzeak 3.000,00 euroko aurrezpena eragiten du gastuan.

IX. kapituluari dagokionez

Honela geratuko litzateke amortizazio arrunte-rako eta amortizazio berezietarako aurreikuspenen koadroa:

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|------------------------|---------|---------|---------|---------|----------|---------|
| Amort. arrunta | 156.900 | 156.900 | 156.900 | 156.900 | 156.900 | 156.900 |
| Amort. berezia | | | | | | |
| P3 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 |
| P7 | | 82.000 | | | | |
| P4 | | 125.400 | | | | |
| P5 | | | 150.000 | | | |
| P6 | | | | 195.700 | | |
| P2 | | | | | 296.500 | |
| P8-9 | | | | | 200.000 | 414.900 |
| P10 | | | | | | 300.000 |
| Urteko amortizazioa | 176.900 | 384.300 | 326.900 | 372.600 | 1046.000 | 891.800 |
| Amortizatzeko dagoena | 3023100 | 2638800 | 2311900 | 1939300 | 893300 | 1.500 |
| Zorra/sarrera arruntak | | | 119,21 | 100 | 46% | |

2010-12-31ko zorra 3,2 milioi eurokoa dela begiz jota –nahiz eta ez erabat ados egon Plazao-lako Partzuergorako maileguaren abalaren irizpidearekin, eta azkeneko urteko diru-sarrera arrunta diru-sarrera horietan balorazio-ponentziatik ondorioztatzen diren eragin positiboak edo eskolako gastuen konponbide hipotetikoa kontuan hartu gabe kalkulatu dira datu hauek.

Diru-sarrerei dagokionez, ekimen hauek erabaki dira:

I. Kapituluari dagokionez

Hirilurren kontribuzioa. 2012rako azkeneko urteetan izan den urteroko emendioa, % 5-6 bitartean mantendu da (22.000,00 euro).

2013an hirilurren balorazio-ponentzia berria sartuko da indarrean; % 10eko emendioa eragingo du horrek (41.000,00 euro). Landalurren kontribuzioa. 2012. urtean Ganberaren txostenaren arabera aplikatuko da tasa; 600,00 euro inguruko gutxitzea eragingo du horrek.

Mendien tasa. 2012. urte honetan lehendabiziko aldiz jarri da herri-lurren ustiaketarengatik tasa berri batzuk kobratzea; kontzeptu honen arabera 8.000,00 euroko diru-sarrerak izango direla aurreikusitua da.

III. kapituluari dagokionez

Kapitulu honetan, ur-horniduraren eta saneamenduaren tasetan % 5-10 bitarteko igoera bat eginez jarraitzen dugu. Kontzeptu horien arabera 280.000,00 euro biltzen direla kontuan hartuta, igoera hau aplikatzeak eragin handia du biltzen diren zergetan.

IV. kapituluari dagokionez

Urteak daramatza udal honek eskola-kontzentrazioaren mantenuko gastuak ordaindu beharrak esan nahi duen bidegabekeria nabarmena salatzen.

Ez da zentzuzkoa eta bidezkoa Lekunberriko herritarrek ordaintzea beste herri batzuetatik eskolara datozen ikasleen gastuak. Urtean 30.000 - 40.000 euro inguru, Nafarroako Gobernuak gastu horietarako egiten duen ekarpena kendu ondoren.

Oraindik aspaldi ez dela batzorde bat eratu da NUKFaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean, udal honek eskatuta, gai hori aztertzeke, eta 2013an zerbitzu hori finantzatzeko modua aldatu egingo dela espero dugu.

VI. kapituluari dagokionez

Hutsik dauden lanpostuak betetzeko deiarri dagokionez, Nafarroako Parlamentuan aurten aur-

keztekoa den udal-mapa berriaren edukia ezagutzeko zain dago udal hau.

Udal honek II. kapituluaren kontabilizatuko dituen haurtzaindegia kudeaketa-gastuak, IV. kapituluaren kontabilizatu ordez; horretarako 2012rako onartutako aurrekontuaren aldaketa bat izapidetuko du hurrengo osoko bilkura arruntean.

Udalak, txostenean ematen diren aholkuei jarraituz, udal ondasunen inbentariotik bereizita jasoko du Udalaren lurzoru-ondarea; inbentario hori dagoeneko eguneratzen ari da, bestalde, bai osarari dagokionez bai balioespenei dagokionez, eta albait lasterren onartzeko konpromisoa hartzen da.

2008 eta 2009. urteetako BEZaren likidazioak direla-eta jarrita dagoen auziari dagokionez, udal honek berriro berresten du gai hau planteatu den instantzietan aldeztu duen jarrera.

Lekunberrin, 2012ko apirilak 14an

Alkate-udalburua: José María Aierdi Fernández de Barrena

2012ko apirilaren 2an Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusi honetan Lekunberriko Udalari buruzko 2010. urteko ekitaldiari dagokion fiskalizazio-txostena aurkeztu da, txosten hori aztertze eta, hala badagokio, alegazioak aurkezteko.

IV atalean –“Iritzia”–, honela esaten da: “2009an, sarreren 6. kapituluaren, 798.363,79 euroko eskubideak aitortu ziren lursail baten salmentaren ondorioz. 2010ean, eskubide horien zati bat modu okerrean deuseztatu zen, 457.068 euroko zenbatekoaz, eta ondorioak izan ditu 6. kapituluaren aitortutako eskubideen eta kobrantzen gainean (457.068 euro gehitu dira), eta aurrekontu-emaitza ere. Era berean, sarreren emaitza ekonomikoaren, balantzearen eta aurrekontu itxiak frogatzen dituen egoera-orriaren gainean ondorioak izan dira.” Salbuespen hori eta beste zenbait direla-eta, udalaren 2010eko ekitaldiari dagozkion kontu orokorrak haren ondare-egoera zehazki ez duela erakusten iritzi da.

Lur-zatiaren salmentagatik izandako diru-sarrera modurik egokienean kontabilizatzeko erari dagokionez, Toki Administrazioak elkarlanean jardun zuen Lekunberriko Udalarekin. Horrexegatik adierazten dira, dokumentu honen bitartez, kontabilizatzeko modu hura Udalaren egoera zehazki adierazteko modurik egokiena eta egoera ongien adieraziko zuena zela uste izateko izan ziren arrazoiak.

2009. urtea:

Udalak 798.363,79 euroko diru-sarrera aitortu zuen lursail baten salmentagatik. Geroztik salmenta zenbateko horretan ez baina 457.067,97 eurotan egingo zela jakin zen. Erakundearen ondare garbian aktiboen emendioengatik izango zen emendiodia, 798.363,79 eurokoa ez baina 457.067,97 eurokoa izango zenez, eta diru-sarrerak ondare garbiaren emendio horren zenbatekoaren arabera kontabilizatu behar direnez, aitorten negatibo bat kontabilizatu zen, aurrekontu-emaitza, jaso ezingo ziren diru-sarrera batzuegatik, 341.295,82 euroz handitu ez zedin.

Zuhurtasun-printzipioa aplikatu zen ezin kobratu izango zirena gauza jakina zen diru-sarrera haiek baztertuz.

Horrez gainera, aurrekontuetan egiaz izango diren diru-sarrerak baino 341.295,82 euro gehiagoko diru-sarrerak kontabilizatu gero, egiaz ez den egoera ekonomiko eta finantzario bat adieraziko litzateke, eta ez litzateke tresna egokia izango erabakiak hartzeko, eta egin ahal izateko egiazko finantzaketarik ez duen gastuak egitera eraman lezake Udala.

Era horretan Aurrekontuaren emaitza ustez behin betikoa izango zen salmentaren zenbatekoaz –457.067,97 euro– baizik ez da handitzen.

2010. urtea:

2010. urtean, urte hasieran salmenta horren zenbatekoa 457.067,97 eurokoa izango zela uste bazen ere, azkenean ezeztatu egiten da salmenta eta urte bukaeran 827.060,22 eurotan egiten da salmenta.

Kontabilitate-informazioaren helburua egoeraren irudi zehatza izatea da; horretarako ezinbestekoa da informazio horren erabiltzaileak identifikatzea, erabiltzaile horien premiak asetzeko eta, premia horien arabera, kontabilitate-informazioa irizpide batzuen ala besteen arabera lantzeko.

Toki Administrazioen eremuan, irabazien banaketarik izaten ez denez, eta deskapitalizatzeko arriskurik izaten ez denez, berebiziko garrantzia du Aurrekontuaren Emaitzak, horixe delako dagokion toki-entitate bere aurrekontuetako diru-sarreren bitartez bere aurrekontuetako gastuei erantzuteko gai den jakiteko tresna egokia, eta gauza bera gertatzen da Diruzaintza Gerakinari dagokionez, aurrekontuetako gastuak finantzatzeko iturburu izan daitekeenez.

Beste alde batetik, kontabilitate-informazioaren erabiltzaileek ez dute kontabilitateko teknizismoak

zertan ezaguturik eta aurkezten zaien informazioak haiek ulertzeko modukoa izan behar du.

Entitatearen egoera ekonomiko egiazkoa ongi adierazteko asmoz, bada, egokiagoztat jo zen 2010eko aurrekontu-emaiztan 369.992,25 euroko eragina adieraztea, zeren, 827.060,22 euroak sartuz gero, gerta baitzitekeen zenbateko horretan aurrez uste zena baino diru-sarrera handiagoak izan zirela pentsaraztea, eta horren ondorioz gerta zitekeen diru-sarrera horien bidez aurrekontuetan

gastu gehiago finantzatzea, izatez diru-sarrera handiago hori izan ez zelarik, eta guztiaren ondorioz gerta baitzitekeen finantzabide-falta bat izatea eta hala entitatearen oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jartzea.

Aurrekontu-emaiztara eraman ziren zenbatekoak ondoko taula honetan adierazten direnak izan ziren, eta azkenean izan zen behin betiko salmentari dagokion zenbatekoaren eragin bateratua izan zuten: 827.060,22 euro.

| Aurrekontu-emaiztan izandako eragina | | |
|--------------------------------------|------------|------------|
| 2009 | 2010 | GUZTIRA |
| 457.067,97 | 369.992,25 | 827.060,22 |

Irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuko 56. arauaren arabera kontabilizatu izan balitz, era honetara izango litzateke aurrekontu-emaiztan izango zukeen eragina:

| Aurrekontu-emaiztan izandako eragina | | |
|--------------------------------------|------------|--------------|
| 2009 | 2010 | GUZTIRA |
| 798.363,79 | 827.060,22 | 1.625.424,01 |

Aurrekontuen betetze-maila egiaz izan zena baino askoz ere positiboagoa izango zatekeen, eta gerta zitekeen egiaz finantzabiderik ez zuten aurrekontuetako gastuak bide horretatik finantzatzera bultzatzea eta, hala, ezin iraunezko diruzaintza-egoera bat eragin zezakeen desoreka ekonomiko-finantzarioko egoera batera eramatea.

Kudeaketa jarraituaren printzipioari jarraituz, bada, toki-entitate horren kontuek toki-entitateak berak bere ardurapean dituen eginkizunak epe luzera betetzeko duen ahalmena eta horretarako gaitasun ekonomiko eta aurrekontu bidezko gaitasuna ahalik eta zehatzen eta egokien adierazko ahalegina egin zen.

Iruñean, 2011ko apirilak 16

Cristina Alzuart Oteiza, A.P.T. (Ekonomia-ardarra)

Ainhoa Urdaniz Narvaez, Enpresa-ikasketetan diplomatua

Marta Paternain Remón, Ekonomia Lankidetzaren eta Aholkularitzako Ataleko burua.

Begoña Urrutia Juanicotena, Ekonomia Lankidetzaren eta Aholkularitza eta Kudeaketa Zerbitzuko zuzendaria.

**COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURI-
KO ALEGAZIOEI**

Lekunberriko alkateak eta Toki Administrazio Departamentuko zuzendariak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak aztertuta, txostenari erantsi eta behin betiko bihurtzea erabaki dugu, gure konklusioak aldatzen ez dituzten azalpenak baitira.

Hala ere, honakoa argitu nahi dugu:

- 3.000 biztanletik beherako toki erakundeendako kontabilitate bakuna onartzen duen irailaren

21eko 273/1998 Foru Aginduaren 60. arauak zehazten du itxitako aurrekontuetako eskubideak bertan behera uzteko modua.

- Aipaturiko Foru Aginduak dioenez, deuseztapenak ez du diru-sarreraren aurrekontuan eragin behar, eta, beraz, ez zen 2010eko aurrekontu kitapenaren diru-sarreretan islatu behar, baizik eta itxitako diru-sarreraren aurrekontu egoeran.

Iruñean, 2012ko apirilaren 19an

Presidentea: Helio Robleda Cabezas

